

ASTELEHENKO Goienkaria

2007ko ekainaren 11 > Astelehena > III. urtea > 149. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Identitatea galdu gabe, atzerriko ikasleak erakartza da helburua"

Nekane Arratibel
HUIHEZI > 06



AHT GELDITU! ELKARLANA
Hauteskunde ondoren, udal gehiagorekin lan egin dezake > 05

GOIENA
Barneko estilo liburua aurkeztu zien baxkide eta langileei > 05

TXIKIRRI-TXIKIRRI MENDI MARTXA
Eguraldi txarrarengatik, parte-hartziale gutxi izan zituen > 20

BERTSO JAIALDIA
Zapatuan egingo dute Arrasateko San Juanetako bertso saioa > 27

TURISMOA > ARRIKRUTZEKO KOBAK, ZABALIK

Aste bukaeran, bisitari asko izan da kobazuloak ezagutzen

BISITAK Talde batzuetan, bisitari kopuru gorena, 25 lagun, lortu dute; eta guztira, 450 bisitari inguru izan dira

GUSTUKOA Umeei, animalien maketak gustatu zaizkie, batik bat; helduak azpiegiturek, koloreak eta argiak liluratu ditu

EKAITZA Argi arazoak eragin ditu eguraldi txarrak, baina, era berean, kobako erreka urarekin ikusteko aukera eman du > 02-03

GIZARTEA > AFRIKA

Afrikarekin elkargune jendetua

Parte-hartze handia izan du Afrikaren gaineko asteak, Arantzazun > 04



EUKARISTIA Jesukristoren Gorputzari agurra egiten, dantzariak; haruntzago, prozesioko gainerako partaideak.

EDURNE BURGÁÑA

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarritzeta > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Sailkatuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

BERGARA > HIRIGINTZA

Bergarako liburutegi berria

Bergarako udal liburutegi berria izango denaren proiektua aurkeztu zuten joan den egubakoitzean, eta udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan ipiniko dute, herritarrek ikus dezaten, ekainaren 25era bitartean. > 11

KILOMETROAK 07 > JAIALDIA

Kilometroetako abestia, 'Argi da', aurkeztu zuten

Egubakoitzean entzun zen lehenengo aldiz aurtengo Kilometroak jaiaren abestia, Argi da izenburuarekin. Berau aurkezteko aurtengo antolatzaleak, Aranzadi ikastolak, herri jaialdia egin zuten Bergarako frontoian, baita arrakasta handiarekin egin ere.

Jaialdiak bi ordu pasa iraun zuen, eta hainbat dantza, kirol,

musika... taldeek egin zituzten emanaldiak. Bukaera etorri zen abestia entzuteko aukera. Hogei lagunetik gora parte hartu dute abestian: Belceblues taldeko hiru kideek, haize laukoteak, piano eta biolin-jole banak, Aranzadi ikastolako umeen koruak eta Uxue Rodriguez eta Aitzol Mujika. Abesti dantzagarria da. > 23

PRESOAK > ELKARTASUNA

Elkartasun Eguna Arrasaten

Eguraldi txarrak zertxobait murritz zuen parte-hartzea, baina erantzun polita izan zuen zapatuko presoenganako Elkartasun Egunak. Monterronen barik, gaztetxeen egin zuten eguneko kontzertu nagusia. > 24

TURISMOA > ARRIKRUTZ KOBAK

Kobazuloan, lilituratuta: txikiak, animaliekin, eta helduak, azpiegiturekin

INAUGURAZIOA Egubakoitzean sartu ziren kobara, berrikuntza lanen ostean, agintariak, langileak eta proiektua garatu dutenak

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI
Arantzazuz gain, hemendik aurreira beste santutegi bat ere bisitatu ahal izango da Oñatin, Araotz auzoan: Arrikrutzeko koba, naturren santutegia. Harritura eta txundituta, halaxe geratu ziren egubakoitzean Arrikrutzeko kobara sartu ziren lehen bisitariak. 14 kilometroko ibilbidean, ordubete eman zuten elkarrekin konektatutako galerietan barrena.

Inaugurazio ofiziala egin zuten, hain zuzen ere, egubakoitzean. Ekitaldian, 120 lagun inguru izan ziren: agintariak, proiektua gauzatu duten enpresetako ordezkarriak eta langileak, eta ideologoak ere. Jose Joan Gonzalez de Txabarri aldun nagusia, Ana Agirre Industria eta Turismo sailburua, Lurdes Idoiaga Oñatiko alkatea, Ernesto Murgiondo Turismo zinegotzia eta Oñatiko Udaleko ordezkarriak, Arantzazuko frantziskotarrak, ibarreko alkateak, kooperatiben ordezkarriak, Aitor Orobengoa proiektuaren garapenean pisu handia izan duen gizona, leizeetako lehoia aurkitu zuen Iñaki Zubeldia eta Arrikrutzen entzun daitekeen ipuinaren egile Patxi Zubizarreta zeuden gonbidatuen artean.

BARNE TURISMOA BULTZATZEKO
Kobara sartu aurretik, agintariekin proiektuaren gaineko berba politak izan zituzten, zer esanik ez kobazuloak ikusi ostean.

Ana Agirre Industria eta Turismo sailburuak egubakoitzean izan zuen lehen aldiz kobazuloa bertatik bertara ikusteko aukera: "Ezagutzen nuen proiektua, eta gaur errealityean ezagu tu dut. Guretzat, egun pozgarria da, benetan. Turismo aldetik, apustu sendoa egin dugu bi gauza lortzeko: batetik, gure lurrardearen baliabideak baliabide turistiko bihurtzea; bigarren, natura turismoa bultzatzea. Gaur inauguratu dugun proiektuak irizpide horiek biak batzen ditu. Proiektu oso ederra da bisitatzen, turistik erakartzeko eta eskualdeko turismoa bultzatzeko".

Turismoari dagokionez, turista guztiek hiriburuetan ez konzentratzea interesgarritzat jo

EKAITZA Tximistek argindarrean arazoak eragin dituzte, eta hainbat taldek buelta eman behar izan dute ibilbidea hasi eta berehala

Barne turismoa indartzeko proiektu egokia izango da Arrikrutz agintarien esanetan

zuen, gainera: "Barruko turismoa oso garrantzitsua da. Gainera, azken urteotan goraka doa, datuak oso onak dira. Beraz, barruko turismoa bultzatzeko baliabideak, gaur inauguratu duguna bezalako proiektuak, bultzatu behar dira. Hortaz, iruditen zaigu lurrardearentzako ere oso garrantzitsua izango dela", esan zuen Ana Agirrek.

Turismoaz ari zela, su-etenia hausteak gurean zein eragin izango duen galdeztuta, zera esan zuen: "Su-etenia bertan behera uztea berri oso txarra da, ez bakarrik turismoarentzako, baizik eta gizartearentzako, orokorrean. Izan ere, itxaropen asko ito eta baztertu ditu berri triste horrek.

BISITAK Martitzenetik domekara bitartean, goiz eta arratsaldez, bisitak egin ahal izango dira Arrikrutzera, gidarien azalpen eta guzti

Baina askotan tokatu zaigu su-etenik gabe ere lana egitea gure sektorean. Ondorioak eta eraginak gerora ikusiko ditugu. Hala ere, azken bost urte hauetan, goraka joan da beti turismoa. Ni baikorra naiz, eta iruditzen zait gure herria aurrera irtengo dela denon artean lana eginez".

Bisitaren ostean, lilituratuta irten zen kobatik: "Ikusgarria iruditzen zait. Argiztapena, soinua eta oinezkoendako pasabidea geratzen egindako lana azpimarratuko nituzke".

URTETAKO JENDE ASKOREN LANA
Oñatiko alkate Lurdes Idoiagak Arrikrutzen inaugurazioan "sentzasio ikaragarria" sentitu zue-

la adierazi zuen: "Urte askotako lan onaren ondorioa ikusita, sekulako poza sentitu dugu. Emaitzarekin oso gustura gau-de, eta jendea animatzen dut, aukera duenean, ikustera etor-tzoko, merezi duela uste dut-eta. Gainera, oso erosoa ibili daiteke kobaren barruan. Iristeko, alda-patxo bat badago, baina oso txikia da; eta barruan, naturaren indarraz gozatuko dute bisitarietik".

Alkateak proiektu honetan jende askok parte hartu duela azaldu zuen: "Azpimarratzeko da egon den sintonia eta sinkronia, hainbat urtetan, zebait gai, teknika, enpresa eta ideia proiektu bakarrean lotu ahal izateko".



BISITA GIDATUAK Aste bukaeran 450 bisitari egon dira Arrikrutzen; ordubeteko ibilbidean egokitutako pasabidean barrena ibili ziren.

JOSETXO ARANTZABAL



AGINTARIAK Kobako atarian, egubakoitzean egin zuten erakundeetako ordezkariek inaugurazio ekitaldia.

TXOMIN MADINA

TXANDA BATZUETAN, 25 LAGUN

Inaugurazio ofizialaren ostean, zapatuan, bisitari arruntendako ireki zituzten kobazuloko ateak eta, arazotxo batzuk salbu, dena ondo joan da.

Arrikutzen, sei lagunek dihardute lanean gidari modura, kobazuloan zein harrera etxeen. Aste bukaeran, gidari lanetan jardun duen Jon Betanzos pozik azaldu da izan duten harrerarekin: "Txanda guztietan sartu da jendea, eta zapatuan jende gutxiago ibili arren, domekako hainbat txandatan, gehiengo kopurua bete da: 25 lagun sartu dira barrura. Domekako bisitari kopurua ez da maila gorenera iritsi gutxigatik.

Aste bukaera osoan, gutxi gorabehera, 450 bisitari izan dira".

Jendeak gustukozer izan duen galdeputa esan digu adinaren arabera gauza ezberdinak gustatu zaizkiela bisitarieie: "Neska-mutikoek lehoiaren eta harzen maketak eta kobazuloetako lehoiaren hezurdura izan dituzte gustuko. Helduek, berriz, egiturei, koloreari eta argiari erreparatu diete, besteak beste".

Aste bukaeran, bitxikeria bat edo beste izan dute Arrikutzen. "Ibilbidearen amaieran, erreka-rekin egiten da topo eta, garai honetan, ez du urik izaten, normalean. Baino, zapatu arratsalde eta gauean eta domeka goizal-

"Ekaitzarengatik argiterian arazo batzuk izan arren, ondo joan da lehen asteburua"

"Ibilbidearen amaierako errekan ura ikustea gozagarria izan da"

Martitzenetik domekara, zabalik

ORDUTEGIA

Martxo-apirila eta urria	10:00-14:00/15:00-18:00
Ekaina-iraila	10:00-14:00/15:00-19:00
Azaroa-otsaila	10:00-14:00/15:00-17:00
Zubiak, Aste Santua eta jaiegunak	10:00-14:00/15:00-19:00

SARRERA

Helduak: 8€	
Erretiratuak eta haurrak*: 6	
Taldeak**: 6€	10:00-14:00/15:00-19:00

* (0-4 urte bitartekoak, doan, nagusi baten ardurapean)
** (15 pertsona gutxinez)

Erretserba telefonoa: 943 08 20 00

dean izandako euri-jasengatik, errekkak ura zeraman, eta ikuste-ko oso polita izan da. Azalpenak emateko gauzak zaildu badizki-gu ere, zarata izugarria zelako, jendeari gustagarri egin zaio", kontatu digu Jon Betanzosek.

Euriak eta ekaitzak alderdi iluna ere erakutsi die Arrikutzi lehen asteburuan, eta, garai batean bezala, argirik gabe geratu da kobazuloa. "Zapatuan, ekaitza zela eta, argindarrarekin arazoak izan genituen, eta, azken hiru txandetan, ezin izan ginenean koba-zulora sartu. Domekan, argiteria konpontzen eman genuen denboran, bisitak hasi aurretik", esan zigun Betanzosek.

Kobazuloa ikustera joan da batez ere jendea Araotzera, eta hori da garrantzitsuena Arrikru-tzeakoendako, baina harrera etxe-an salgai dauden oroigarriak ero-si dituenetan ere izan da: "Kamisetak, bonboiak eta postal batzuk saldu dira, baina oroigarririk arrakastatsuena kobazuloko megafoniak entzuten den Patxi Zubizarretaren ipuinarekin ate-ra dugun liburuxka izan da".

ORDUTEGIAK ERRESPETATU

Aste bukaerako arrakastaren ostean, dagoeneko hitzartuta dituzte beste hainbat bisita; esa-terako, Frantziatik bi talde eto-riko dira artea, ingurumena eta kultura uztartzen dituen turismo eskaintzaz gozatzen Oñatiara.

Arrikutz bisitatzeko, kome-nigarria da aurrez telefonoz erre-tserba egitea, eta txartelen bila, gutxinez, bisita ordua baino 15 minutu lehenago joatea harrera etxera. Jon Betanzosek esan digunez, "izan da berandu etorri eta sartu ezinda geratu denik. Ordutegia errespetatu behar da, eta gogorarazi nahi dugu puntual-tasuna garrantzitsua dela; bestela, ez dago sartzerik. Hurrengo txan-dari itxoin beharko liokete eta, gainera, tokia egon behar da tal-de horretan ere".

Atæk zabalik daude, beraz, eta ordutegiak zein portaera arauak zuzen errespetatuz, natu-raz, kulturaz eta arteaz gozatze-ko aukera paregabea dago hemen-dik aurrera Oñatitik Arantzazu-rako bidean, Araotz auzoko parajerik ezkutuenetan.



Biaia familia eta Mila Azkue
Oñati



Jacinto Astiazaran eta
Mirella> Tijuana (Mexiko)



Imaz familia
Lazkao



Etsozi Larrañaga
Soraluze

Oñatitik bertatik joan zen zen zapatu goizean familia hau Arrikutz bisitatzera. Aurrez, Karrantzan, Pozalaguako kobetan, egonak ziren, baina, herrian bertan kobak izanda, lehen eguna aprobetxatu zuten ezagutzeko.

Koban sartu aurretik egon ginen eurekin, eta irrikaten ziren gauza berriak ikusteko: "Inguru ezaguna genuen, baina kobazuloa bera, ez. Egin duten bidea, estalaktitak eta estalagmitak, lehoi famatua-ren erreplika, hartzak... ikus-tera etorri gara".

AURREZ BARRUAN IBILIA
Espeologian jardundakoa da Jose Manuel Biaia, eta Arrikutzeko koban, 53. gale-rian bertan, topografia lanak egindakoa. "Gu karburoarekin etortzen ginen, eta inguru-ko bakarrik ikusten zen. Orain, argiarekin, musikarekin... politagoa izango dela uste dut". Oñatirendako proiektu honek esanahi bereziaduela ere esan digu: "Gipuzkoan horrela gertatutako lehen kobazuloa denez, jendeak lur azpian zer dagoen ikusteko aukera izango du".

Gidariak esanda jakin zuten eurak izan zirela Arrikutz sartu diren lehen mexikarrak: "Guretzat pozgarria izan da Euskal Herriaren muina, barrunbeak ezagutzea".

Oñatiko, Soraluzeko eta Donostia-kon senideak bisita-teroritzaren, eta Arrikutz ikusteko aprobetxatu zuten egonaldia. Gehien gustatu zitzaiena izan zen "horrela-kotik batean baino sentiezin daitekeen zerbait sentitzea: isiltasuna, iluntasuna eta den-boran atzera egitea moduko sentipena".

Lazkaotik etorri zen familia, goizean goi, zeta asko gusta-tu zitzaien kobazuloa. "Oso interesarria iruditu zaigu; gainera, umeentzako ipuin bat ere kontatzen dute, eta polita izan da bisita, ordu dibertigarria pasa dugu bai gurasoak eta baita umeek ere", esan zigun Mikel Imazek.

Komunikabideen bitartez izan zuten kobazuloen berri eta, bisitaren ostean, esan ziguten zerk harritu zintuen gehien: "Zein ondo gordeta dagoen. Estalaktitak-eta oso ondo kontserbatuta daude".

ANIMALI ETA ESTALAGMITAK
Umeei, estalagmitak gustatu zitzaien gehien, eta esan ziguten ipuin bidez eman zietela lehengo garaien berri, eta zertxobait ikasi zutela: "Lehengizaki buruzko ipuin-a kontatu digute barruan", esan ziguten.

Beharbada, lagunekin noizbait itzuliko direla esan ziguten Rubenek, Keilak eta Anek. Bitartean, guri esan ziguten barruan zer ikusi zuten: "Krokodiloaren burua, lehoiaren hezurdura, hartzak, tigrea... animali asko".

Prentsaren eta telebistaren bidez jaso zuen koben berri, eta jakinminha asetzera joan zen Arrikutzera: "Oso impresio ona jaso dut. Dena gusta-tu zait, batez ere, nola dagoen gertatuta argi aldetik, azpiegiturerei dagokienez, kontaketa... Estalaktitak eta anto-latu dituzten salak ere gus-tatu zaizkit. Gidariakere ondo erakutsi digu dena".

Etsoziren ustez, merezidu kobazuloa ikustea: "Jendea animatuko nuke eta, batik bat, ume eta gazteek ezagu-tu dezaten nolakoa den hau".

GIZARTEA > AFRIKAREN GAINeko JARDUNALDIAK ARANTZAZUN

Aurreikuspen guztiak gaindituta bukatu da Afrikaren gaineko astea

'Arantzazu, Afrikarekiko elkargune' jardunaldiak atzo bukatu ziren; egun arrakastatsuenean, zapatuan, 200 lagun ere batu ziren

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI
Pozik daude antolatzaleak, Baketik eta Tau fundazioak, joan den aste osoan Arantzazun egin diren Afrikaren inguruko jardunaldiak zelan joan diren eta ze erantzun izan duten. "Espero baino askoz jende gehiagok hartu du parte: Afrikaren inguruko ikastaroan, 70 bat lagun ibili dira, eta zapatuan ibili da jende gehien: asko goizerako eterri eta egun osorako geratu ziren", dio antolatzale taldeko Olatz Pratek. Bere esanetan, esanetan, parte-hartzaile asko egoteaz gain, denetarikoak izan dira: "Adin guztietakoak, eta Unibertsitateko ikasleak, erretiratua, familiak, gurasoak seme-alabekin... izan dira".

Zapatuan, Mbuyi Kabunda jardunaldiak zuzendariak hitzaldia egin zuen, eta hara, 150 bat lagun joan ziren; herri bazkarian, 200era ere iritsi ziren. Une hunkigarriak ere izan ziren hor, Kabunda ere han egon zelako, eta parte-hartzaleek txalo egin ziotelako.

Aste osoan, Afrika hobeto ezagutzea ikastaroa eta, egunero, hitzaldi edo mahai-inguru bana izan dira Arantzazun, Afrikako egoera sozio-ekonomikoa, gatazkak, giza-eskubideak... lantzeko. Atzo, domeka, mendi ibilaldiarekin, itxiera ekitaldi batekin eta M'Lomp kultura taldearen musika saioarekin bukatu ziren aste beteko jardunaldiok.

UMILTASUNA

Pratek dioenez, "helburuak bete egin dira: Afrikako errealitatea hobeto ezagutaraztea, eta jendeari kanpora begiratzen laguntzea. Afrikarrak oso umilak dira, eta hori ere irakatsi digute".

Parte-hartzaile askok etorkinen gaiaz interesa azaldu zuten, eta datu interesgarriak jakin zituzten, hala nola migrazioaren %10 bakarrik doala Afrikatik kando; %90 barru-migrazioa da.



BUKAERA EKITALDIA M'Lomp taldearen musika saioarekin amaitu ziren jardunaldiak.

JOSETXO ARANTZABAL

Milurteko Autobusak elkartasun mezua utzi du Arrasaten

Arrasaten, Medicus Mundi erakundearen Milurteko Autobusa erakusketa ibiltaria egon da, egubakoitzetik atzora bitartean.

Milurterako, zortzi garapen helburu finkatu ziren 2000. urtean, eta horiek erakutsi ditu autobusak: pobreza eta goseak konpondu, hezkuntza unibertsala, sexu berdintasuna, umeen heriotza-tasa gutxitu, garapen iraunkorra...

Arduradunak "oso pozik" doaz Arrasatetik: "Batez ere, eskola-umeak eterri dira; eta batzuk, ikastetxeo bisitaz gain, euren kontura eterri dira berriro".



Erakusketako arduradunak.

JOSETXO ARANTZABAL

AFRIKA > KONGOREN GAINeko DOKUMENTALA

Arantzazun estreinatu zen 'El diamante de Salomón'

Oskar Epelde arrasatearrak eta Fermin Ayo algortarrak egindako dokumentala estreinatu zen, 100 bat lagunen aurrean, zapatuan, Afrikaren gaineko astean, eta bart gauerdian ere ematekoak ziren ETB2n.

Epelde Kinshasan zegoen ikerketa bat egiten; hasieran, ez zegoen dokumental bat egiteko asmoz, baina bai hainbat elkarrizketa egiten. Bueltan, Jonan Fernandezek deitu zien, Baketik-en izanean, jardunaldiatarako zerbaite egiteko eskatuz, eta hala egin zuten filma.

BENETAKO ISTORIO BAT

Dokumentalean, benetako istorio bat gogoratzen da: hain zuzen, Kongoko bi meatzarik diamante trafikatzaile zuri batek diamante handi bat ordain diezaten egiten duten borroka.



ESTREINALDIA Gaudiaga Topagunean eman zen filma.

JOSETXO ARANTZABAL

UGARTE
AROTZEGIA-ALTZARIAK

K21

Arotz lanak orokorrean
• Horma armairuak
• Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerlek zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

Hirusta Tatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABAleta



MAHAIA Goienako zuzendari nagusia, presidente eta idazkaria, batzarreko une batean.

ENEKO AZKARATE

GOIENA > BATZAR OROKORRA EGIN ZUEN JOAN DEN EGUNLEAN

Estilo liburua egin du Goienak talde barrurako

Estilo liburu propioa izatea "oso garrantzitsu" jotzen dute Goiena taldeko arduradunek

A.G. > ARRASATE
Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak bere estilo liburua aurkeztu zuen taldeko bazkide eta langileen aurrean, joan den egunean, Kulturaten egindako batzar orokorrean. Goienako zuzendari nagusi Inazio Arregik dioenez, "kazetari eta langileentzat gida izateaz gain, herritarrentzat ber-

mea suposatzen du". Liburua Goienaren barru-erabilerarako izango da, oraingoz, behintzat.

Bestetik, sortu zenetik lehen aldiz, Goienak bere kontuak orekatzea lortu du, aurretik metatutako galerak kitatuaz, eta zuzendaritzak ASTELEHENKO GOIENKARIAko harpidedunek egindako ahalegina esker-

tzen dute hori lortzeko. "Herriaren ekarpenak oso garrantzitsuak izango dira etorkizuneko proiektu sendo bat eraikitzeo", diote arduradunek.

Bestalde, hil amaieran jakinago da GOITBk emititzeko lizenziari lortu duen ala ez, eta horretaz hitz egin zen batzarrean; lortuko balu, Goienak konpromiso batzuk ditu Hamaika taldearekin eta tokiko telebista batzuekin, euskarazko tokiko telebisten sare garrantzitsu bat eraikitzeo.



ANDONI ALTZELAI

Urrituek egun pasa ederra izan zuten zapatuau, SUDCeko lagunekin batera

Egun pasa polita egin zuten adimen urritasuna dutenen Atzegi elkarteko kideek eta SUDCeko lagunek herenegun, zapatua. Urtero bezala, aurten 22. urtez, SUDCeko urrituendako jaietxea antolatu zuten, eta Atzegiko hogeitik gora parte hartu zuten. Eguerdian hasi zen jaia, trikiti emanaldi eta kalejira batekin; segidan, triki-poteoa egin zuten, eta Alkartun bazkaldu zuten gero. Bukatzeko, Txatxilipurdirekin hainbat jolas izan zituzten Uarkape frontoian, 19:00ak arte, eta opariak jaso zituzten.

GIZARTEA > AHT-REN AURKAKO MUGIMENDUA

AHT Gelditu!-k udal gehiagorekin lan egingo du

Hauteskundeen balorazioa egin du Elkarlanak, eta pozik dago, lehen baino udal gehiagorekin lan egingo duelako

jo zuen Ertzaintzaren joera. Mendi martxan, bereziki, Elo-rioko eta Atxondoko "herriar arruntek" parte hartu zutela azaldu du Elortzak, haur nahiz nagusi. Abiadura Handiko nondik pasatzen den oraindik ez dakiten pertsonek parte hartu zutela dio.

DATOZEN EKINTZAK

Ekainaren 30ean, AHTren aurkako eguna egingo da Elorriion, eta batzar orokorra egingo dute hantxe Elkarlanekoek.

Debagoienean, trenaren ibilbidearen gaineko informazioa jasotzen ari direla adierazi du Elortzak. "Planoak lortzen saiatzen ari gara. Ondoren argazkiak atera eta horrekin panel informatiboak egin nahi ditugu". Herriz herri erakutsiko dituzte panelok. Arrasateko San Joaquinaren prest izatea nahi dute; modu horretan, igartzen duten "informazio faltari aurre" egin nahi diote, Elortzak dioenez.

Adibide bat ere jarri du: Arrasaten ibilbide gehiena lur azpitik egingo duela azaldu du. "Hortaz, jendeak uste du ez due-la eragin handirik izango trenak"; baina hori ez dela horrela izango argitzen du Elkarlaneko kide horrek: "Arrasate eta Aramaio artean zabortegiak sortu dira, eta kalteak ikaragarriak izango dira", dio.

LAN ESKAITZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba Elkarteak

KOMERTZIALA behar du Debagoienerako:

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Lantaldean lan egitea.
- Laneko kontrataua, Gizarte Segurantzarekin.
- Soldata interesgarria.
- Egun osoko lan jarduna.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea (ezinbestekoa da).
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Marketineko ikasketak izatea.
- Publizitate eta komertzial lanetan eskamentua izatea.
- Debagoienean edo inguruan bizitza eta ondo ezagutzea.

Curriculumak bidali ekainaren 20a baino lehen ondorengo helbidera:
admi@goiena.com

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak bi ikastaro antolatu ditu datorren ikastur-

terako. Nazioarteko ikastaroak dira, eta biak ingelesez izango dira erabat. HUHEZIKO dekano

Nekane Arratibeak ikastaro hauen gaineko nondik norakoa azaldu dizkigu, baita HUHE-

ZIK datorren ikasturtera begira dituen asmo eta proiektuen berri eman ere.

Nekane Arratibel > HUHEZIKO dekanoa

"Gure identitatea galdu gabe, atzerriko ikasleak erakartzea da helburua"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ESKORIATZA
Nekane Arratibel Lazkaon jaio zen oraindela 39 urte, eta Antzuolan bizi daegun. Doktorea da Psikologian eta 2000. urtean iritsi zen HUHEZIra. Dekanoa da eta, bere lanen osagarrri, master bat egiten ari da kudeaketan. Datorren ikasturteko berrikuntzez eta ingelesez egingo diren ikastaroez jardun dugu.

Datorren ikasturtean, ingelesez emango dituzue bi ikastaro. Zeren gaineakoak dira?

Nazioarteko bi ikastaro eskaniko ditugu: bata *Hezkuntza eta hizkuntza gutxitua* izeneko (*Education and minority language*), eta bigarrena, *Komunikabideak eta hizkuntza gutxitua* (*Media and minority language*). Lehenengoaren haria Haur eta Lehen Hezkuntza hizkuntza gutxitu baten ikuspegitik, euskararenetik, aztertzae izango da. Honekin batera, espainola eta inglesa nola uztartzen diren gure ikastetxeetan ere aztergai izango da. Bigarrenaren haria komunikabideak euskara moduko hizkuntza gutxitu baten ikuspegitik aztertzae da.

Atzerriko ikasleek bost hilabeteko Erasmus egonaldiak egingo dituzte gure fakultatean. Aipatzeko da, ikasgai gehienetan, atzerriko ikasleak bertako ikaslekin batera egongo direla gelestan. Gure ikasleen ikasketetan inglesa txertatzeko era bikaina izango da, eta Erasmus ikasleen integrazioa ere errazagoa izango dela uste dugu.

Zer dela eta hartu duzue eskolak ingelesez emateko erabakia?

Gurea fakultate euskalduna da, eta mundura irekia. Baino kontziente gara euskarazko eskaintzarekin zaila dela ikasle atzerriarrek gurera erakartza. Arrazoi horrexegatik erabaki genuen ikastaro hauek ingelesez eskaintza, gure identitatea galdu gabe atzerriko ikasleak erakartzeko helburuaz. Eredua iparraldeko herrialdeetatik hartu dugu –Norvegia, Finlandia, Holanda... Herrialde hauek ez dute interes handirik pizten atzerriko ikasleengan, baina nazionaleratze estrategia eraginkorrik dituzte. Bertatik hartu genuen ikastaroetarako ideia.

Lehenengoak zarete horrelako ikastaroak ingelesez eskaintzen, ezta?

Bai, lehen unibertsitatea gara Euskal Herrian horrelako ikastaroak eskaintzen. Gainerako



Nekane Arratibeak ia urtebete darama HUHEZIKO dekano karguan.

GOIENKARIA

unibertsitateek, atzerriko ikasleak erakartzeko, espainolezko ikastaroak eskaintzen dituzte. Gure apustua bestelakoa izan da.

Nongoak izango dira ikasleak?

Oraingo, zortzi ikaslek eman dute izena: bi Estoniakoak, hiru Fladeskoak (Belgika), bi Turkiakoak eta bat Holandakoak.

Bi ikastaroak egingo dituzte?

Beraien ikasketen arabera, Hezkuntzako ikastaroa ala Komunikabideetako egin aukeratuko dute. Bi ikastaroek modulu komun bat dute, euskarari eta euskal kulturari dagokiona. Ikastaro bakotzeko gainontzeko lau moduluak espezifikoak dira.

Zein dira bi ikastaroon helburu nagusiak?

Helburuak hainbat mailatokoak izan daitezke: maila orokorrean, Mondragon Unibertsitatea eta gure fakultatearen nazioar-

MUNDURA ZABALIK

"Zaila da euskarazko eskaintzarekin ikasle atzeritarrak gurera erakartza"

PRAKTIKAK

"Ikasleek praktikak egin beharko dituzte eskolatan edo komunikabideetan"

BERRIKUNTZAK

"Titulazioak egokitutako dira 2010erako, eta birdiseinatu egin behar ditugu"

teratze estrategia indartzea da. Gainera, ez dugu ahaztu behar gure unibertsitateko Mendeberri Hezkuntza Proiektuaren zutabe nagusietariko bat eleaniztasuna dela, eta, ikastaro hauen bitartez, fakultateko ikasleen curriculumean inglesa txertatzeko aukerak areagotzen direla. Beste maila batean, atzerriko ikasleak HUHEZIKO ikaslekin batera hainbat ikasgaitan elkarrekin egoteak abantaila handiak dituela uste dugu: kulturartekotasuna bultzatzea eta jende eta esperientzia berriak ezagutzeko aukera da. Esperientzia aberatsa izango dela uste dugu.

Praktikak ere egingo dituzte?

Ikastaro hauek, neurri batean, teorikoak dira, baina badute alderdi praktikoa ere. Ikasleek praktikak egin beharko dituzte eskoletan edo komunikabideetan, eta baita proiektu bat ere, amaieran.

Atzerriko gurera etortzen dira ikastera, baina HUHEZIKO zenbait ikaslek ere egiten dituzte praktikak atzerrian, ezta?

Oraingo ikasturtean, HUHEZIKO hainbat ikasle joan dira atzerriko unibertsitateetara Erasmus beka batekin: lau Birminghama (Ingalaterra), bi Rotterdamera, bi Hagara (Holanda), eta beste bat Oslora, Hezkuntza arlotik; eta bi Tallinnera (Estonia) eta beste bi Windesheimera (Holanda), Giza Zientzien arlotik. Honez gain, praktikak egitera ere ikasle asko joaten dira atzerriko: Nikaragua, Venezuela eta Guatemalara, iaz 12 ikasles joan ziren, eta Inglaterra, Eskozia, Irlanda eta Galesera, beste 13 pertsona, Hezkuntza arlotik. Giza Zientzietakoak, truke programaren bidez, Hego Ameriketara joaten dira azken urte hauetan, eta aurten, lehenengo, Komunikazio ikasketetako hiru ikasles Brasilera joango dira.

Atzerrian ikastea, beraz, one-rako da, zure iritziz?

Ikasleek toki berriak, hezkuntza eredu ezberdinak, jende berria, kultura berriak ezagutzea oso garrantzitsua eta aberasgarria dela uste dugu. Esperientzia hauetatik asko ikas daiteke, eta ez ezagutza teknikoa bakkarrak, baizik eta, askotan, ikasgeletan ikastea zailagoa dena: jarrea, autonomia, norbere buruan konfiantza...

Epe bat pasa da HUHEZIKO dekano kargua hartu zenuenetik. Tarte horren balorazio labur bat egingo zeniguke?

Kargua hartu nuenetik pasa den ia urtebeteara oso intentsua izan da. Gauza asko egiteko, eta eguna labur! Bizitzan bezala, gazi gozoak izan dira denbora tarte honetan, baina esperientzia aberatsa izaten ari da arlo askotan. Ez dakit etxean gauza bera esango duten, baina...

Bidean aurrera eginez, ikasturte berriroko zein beste berrikuntza izango dira HUHEZIKO?

Berrikuntza nagusia izango da, 2010erako, titulazio guztiak egokituta egon behar dutela Europaren Goi Hezkuntza Eremu berrira. Horrek esan nahi du birdiseinatu egin behar ditugula geure titulu guztiak, eta graduoko ikasketa berriak 08-09 ikasturteko izan nahi ditugu. Beraz, datorren ikasturtean, lan handia dugu hau aurrera eramatzen.

oharrak eta deialdiak

ARRASATE

> AEKk udako ikastaro intentsiboak egingo ditu

Helduen euskaldun-tze-alfabetatzean dau-den mailei begirako lan-keta berezia egingo dute ikastarootan, eta mate-rial zehatzta prestatu dute horretarako. Ika-staroak 80 ordukoak izan-go dira, eta 20 egunez emango dituzte. Uztailaren 2an hasiko dira esko-lak, eta 27an bukatu. Ize-nematea epea 22an buka-tuko da. Horretarako, Erdu euskaltegira jo, edo deitu 943 77 03 69 zen-bakira.

BERGARA

> Udarako ikastaro trin-koak Udal Euskaltegian

Hilaren 26tik uztai-laren 20ra arte izango dira. EGArri dagokionez, uztailean nahiz irailean emango dute. Izenema-te epea gaurtik hilaren 22ra arte egongo da zaba-lik. Bulego ordutegia hau da: 08:12:30-14:30-18:30. Izena emateko edo informazio gehiago jaso-tzeko: 943 76 44 53 edo berg.eusk@udal.gipuz-ko.net.

BERGARA

> Turismo Bulegoa zaba-lik egongo da irailaren 30era arte

Udako denboraldia bukatu bitartean, zaba lik egongo da Turismo Bulegoa. Dena den, hainbat egunetan itxi egingo dute. Hala, ekainari dagokionez, itxitx egongo da 10ean, 17an eta 24an.

BERGARA

> Gazteendako, uztai-ean irteerak

Udalak eta Foru Aldundiak antolatu dituzte. Uztailaren 4an, Bidarraira izango da irteera, rafting egitera. Prezioa 20 euro dira. Ize-nematea gaur hasi eta hilaren 23ra arte da. Bigarren irteera Arcachongo (Frantzia) aqua-parkera izango da, uztai-laren 19an. Prezioa 20 euro dira eta izenema-tea hilaren 18tik 30era izango da. Informazio gehiagorako, kultura etxera deitu: 943 77 91 60.

OÑATI

> Herribatzarra deitu du Ezker Abertzaleak

Bihar, martitzena, egingo dute herri batzarra, 19:00etan, Arrano elkartean. Landuko dituzten gaiak hauek dira: hauteskundeek utzitako egoera eta aurrera begira herrian abiaraziko duten lan ildoa.

ANTZUOLA

> 'Enplegu bat lortu'dela-ko ikastaroa KZgunean

Hilaren 14an, egue-na, egingo dute ikasta-ro hori, 18:00etatik 20:00etara. Euskaraz izango da, eta leku libre-ak daude.

OÑATI

> Arrantza txapelketa-rako izenemate epea zabalik dago

Hilaren 17rako, arrantza txapelketa antolatu dute Alzu arrantza dendak eta Pago Uso elkartea. Arantzazu errekan izan-go da, 09:00etatik 12:00etara. Interesatuek Alzu arrantza denda eman dezakete izena hilaren 14a baino lehen.

ARETXABAleta

> Lorezaintzaren gaine-ko ikastaroa antolatu du Loramendik

Hilaren 20an eta 27an izango da ikasta-roa, 18:00etatik 20:00etara. Lehenengo egunean

kanpoko loreen gainean jardungo du Blanca Perak; bigarrenean, berriz, barruko gainean. Izenematea zabalik dago eta doan da.

ARRASATE

> San Juanetako nagusien omenaldirako izenematea, zabalik

Urtero bezala, 80 urtetik gorako herritarra omenduko dituzte San Juan jaietan, ekainaren 24an. Udalak jakinarazi du parte hartze-ko izenematea zabalik dagoela hilaren 19ra arte, BAZen. Beharrezkoa izango da nortasun agiria aurkeztea.

DEBAGOIENA

> Animazio soziokultur-alaren gaineko ikasta-roa emango dute

Arizmendi ikastola-ko Lanbide Heziketak antolatu du. Gaur hasi eta hilaren 22ra izango da, goiz edo arratsaldez, aukeran. 20 orduko ikas-taroa izango da, eta honako gaiak landuko dira, besteak beste: motrizitatea lantzeko ariketak, musikoterapia eta memoria lantze-ko teknikak. Informazioa: 943 77 20 23.

BERGARA

> Irteera Pol-Pole eta Gor-la Alpino taldeekin

Ekainaren 16an eta 17an egingo dute irteera, Sierra de Hijar-Alto Campora. Izena emateko jo Pol-Pol elkartea Komenio kalean duen bulegora.

ELGETA

> Biodantza ikastaroa emango du Elena Subijana psikologo eta irakasleak egunearan

Egunearan, hilaren 14an, izango da ikasta-roa. Doan da, eta nahi duten guztiak har deza-kete parte. Elena Subijana psikologo eta bio-dantza irakasleak emango ditzu eskolak, 19:15etik 21:00etara, Herri Eskolan. Informazio gehiago, telefono hauetan: 606 63 61 99 (Ana Sousa) edo 699 85 80 26 (Elena Subijana).

943 25 05 01
goinkaria@goienea.com

debagoiendarrak kanpoan

Egoitz Zubizarreta > Arrasate

"Kostakoak barnealdeko herrietara bizi izatera ekartzea zaila izaten da"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Normalean, astean behin Arrasate-را etortzeko ohitura duela esan digu Egoitz Zubizarretak. Lagunak bisisita eta etxekekinekin egotera etortzenda; baita ere Araotzera, hai-tean eskalatzen. Oso gogoko duen kirola da eskalada.

Zer dela eta erabaki zenuen Zumaiara bizi izatera joatea?

Nire neskataluna Zumaiakoan da eta, orain bi urte, elkarrekin biziitzea erabaki genuen. Orduan, ni Zumaiara joatea samurragoa zela pentsatu genuen. Izan ere, kostakoak barrura ekartzea zai-la izaten da!

Hala, Zumaiara joan nintzen bizi izatera, orain bi urte.

Gogorra egin zitzazun Zumai-ra bizi izatera joatea?

Ez, egia esan, ez zitzaidan batere gogorra egin, aurrez ere, egon izan nintzen-eta etxetik kanpo bizi izaten.

Gainera, Zumaia oso herri lasaia da, eta gustura nago ber-tan. Arrasaterekin alderatuta, askoz ere jende gutxiago bizi da -zortzi mila, gutxi gora behera-, eta lasai asko bizi gara.

Zer nahiago duzu: Arrasate eta inguruko mendiak ala Zumaia-ko kosta?

Niri Arrasate ingurua gehia-go gustatzen zait. Egia esan, ni barnealdekoa naiz, eta ez naiz oso kostazalea. Hala, Arrasate inguru-ko mendiak, Udalatx eta Anbo-to, nahiago ditut Zumaiako hon-dartzak baino.

Ez dut hondartzara joateko ohiturarik; ahalik eta gutxien



GOIENKARIA

Zumaian bizi da

Arrasatean hori Zumaian bizi den arren, Bergaran dago erroldatuta. Lan, berriz, Iurretan egiten du.

joaten naiz. Gainera, eguneko azkeneko orduak aprobetxatzen ditut etxetik irten eta hondartzara joateko. Izan ere, egunean zehar, jende asko egoten da hondartzan, eta hori ez zait larregi gustatzen.

Zumaian bizi zaren arren, Biz-kaian egiten duzu lan.

Bai, hala da. Gehiago esan-ko dizut: arrasatearra naiz, Ber-garan nago erroldatuta, Zumaian bizi naiz eta Iurretan egiten dut lan.

Egunero ez, baina askotan egin behar izaten dut Zumaia eta Iurreta arteko bidea.

Zenbatean behin etortzen zara Arrasatera?

Ez dakit, baina, nik uste dut astean behin ahalegintzen naize-

la Arrasatera joaten eta inguru-koei bisita egiten.

Gehienbat, lagunak eta famili-a artekoak ikustera joaten naiz Arrasatera. Baita ere herriko giroaz gozatzen.

Arrasateko zer da gehien fal-tan nabaritzen duzuna Zumaian zaudenean?

Nire ustez, kanpoan dagoenak koadrilako lagunak eta familiakoak nabaritzen ditu gehien faltan.

Bestalde, Araotzera eskala-tzera joateko ohitura ere badau-ka, beraz, Araotz inguruak ere faltan nabaritzen ditut. Orain ez naiz lehen beste joaten Araotze-ra, eta faltan igartzen dut hanga-giroa, bai.

Lehen, askotan joaten nintzen eskalatzera, asko gustatzen zaidan kirola da-eta.

etxeko leihotik



Inazio Arregi > Goienako zuzendari nagusia

Etxebizitza, gazteak eta berdea

A zken hauteskundeetako lelo errepikatuenetariko bat etxebizitzena izan da. Jendeak nonbaiten bizi behar du eta etxebizitzarako eskubidea eztabaidaezina da. Bainha eraikuntzek gure berdeguneak ari dira desagertarazten. Bestalde, bikote gazteak euren bizitza ari dira hipotekatzen hurrengo 25 urteetarako. Beharbada iritsi da bi gai hauei buruzko gogoeta sozial zentzuzko bultzatzeko sasoia.

Batetik, lau altuerako etxeak egiten jarraitzen badugu, behar baino berde gehiago jan beharko dugulako, gure lurra porlanez beteaz.

Bestetik, jabegoa bultzatzen duen politikaren onuradun nagusiak espekulatzaleak eta finantza sistema direlako. 240.000 euroko kreditu bat, 25 urtera, %5ean eskatzen duen bikote batek, lehen bi urteetan bakarrik, 23.522 euro ordaindu beharko ditu interesetan eta 10.150 kreditua itzultzeko.

Bikote berorrek hilean 500 euroko alokairuko etxe bat izango balu, 12.000 eurorekin guztia egingo luke, eta 21.672 euro edukiko lituzke epe berean, nahi dituen inbertsioak egiteko, aurreztekero edo gastatzeko.

Ez dago gauzak egiteko modu hoberik?

> Finantza-erakunde-

ak eta eraikuntza taldeak dira egoeraren onuradun nagusiak.

Hara, Euskal Bizikletako laguntzaile garran-tzitsuenak: BBK, Grupo Amenabar, Grupo Eibar eta Inmobiliaria Orio

> Aurreko

batean idatzi nuen hauteskundeen ondoren negoziazio mahaiak lehengo itxura berreskuratuko zuen esperantzaz. Ez da horrela izan, baina esperantzaren leioha zabalik utzi beharko dugu.

kale inuesta**Udan, eguzkia hartzeko orduan, zure burua babesteko neurririk hartzen duzu?**

Goiztiri Lara
Langilea
Bergara



Marian Belastegi
Langilea
Bergara



Ana Abajo
Langilea
Bergara



Eneko Prat
Ikaslea
Bergara

Ni neu beltzarana naiz azalez, eta ez dut eguzkiarekin inolako arazorik izaten. Gustuko dut hondartzan eguzkipean etzanda egotea eta kolorre pixka bat hartzea, eta ez dut inolako kremari ematen, gainera.

Ez dut neurririk hartzen, baina hemendik aurrera hasi beharko naiz babes-kremak erabiltzen. Eguzkizalea naiz, eta kolore beltzarana hartzea gogoko dut. Orain arte erre ez naizenez, ez diot babesari erreparatu.

Bai. Kremak erabiltzen ditut; uda hasieran, babes maila altukoak eta, pixkanaka, jaisten joaten naiz. Saitzen naiz eguerdian eguzkipean ez egoten. Gustuko dut beltzarana egotea, baina azalaren kalterako da.

Bai, krema ematen dut. Gustatzen zait eguzkia hartzeara eta, gainera, oso azkar hartzen dut kolo-re beltzarana. Hala ere, babes ertain edo altuko krema erabiltzen dut hondartzara joaten nai-zen bakoitzean.

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

ARRASATE**> Monterronetik Gorostizarako pasealekua ilun**

Arrasatear bat kexu da, Monterronetik Gorostiza auzoraino doan pasealekua "oso iluna" dela: "Nik sarri egiten dut bide hori etxera joateko, eta ez dauka argiteriarik. Hori premiazkoa baldin bada herriko auzoetan, zer esanik ez erdigunean dagoen pasealeku baten. Oso iluna da, eta segurtasun falta sentitzen dut nik behintzat. Mesedez, ipin ditzatela kale-argi ganorazko batzuk!"

OÑATI**> Oñatiko irteeran, beti putzua errepidean**

Oñatiko irteeran, Citroen-en egoitza zaharraren parean, "erre-pidean sortzen den putzu erraldoiaz" kexuka deitu ditu oñatiar batek: "Aste bukaeran bota duenarekin, jakina, sekulako igeritokia sortu da, piboteak eta abiadura murrizteko seinaleak eta guzti ipini behar izan dituzte! Baino, lau tanta botata ere, berehala pilatzen da ura leku konkretu hartan". Horrek sortzen duen "arris-kuaz" kexatzen da, "batez ere, oharkabeen doazen gidariendako".

BERGARA**> Ihintzagailuak, traban**

Bergarako irakurle batek dioenez, domekan herriko berdegune batzuetan zeuden ihintzagailuek, mesede baino gehiago, tra-ba egiten zuten: "Ama bat eta bi alaba busti egin ziren handik pasatzean, eta gehiegiz inguratu gabe, ez pentsa! Gainera, eguno-tako eguraldiarekin, beharrezko zen ura horrela gastatzea?"

Goienkaria

Argiratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendarri nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña Oinarritzko diseinua Gólo Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publicitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Miren Agirre Administrazio arduraduna Agurtzane Gauntzaran

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Fax: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Fax: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Fax: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0084/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako
Foru Aldundia

zorroztaila

Juan Luis Azkarate

Energia iturriak

"Alemaniako kantzilerrak nahi zuen hitzarmena ez dute lortu, ale-gia, 2050erako berotegi efektua era-giten duen gasen isurketa erdira jaistea. Akordioak Nazio Batuen Erakundearren babesean egitea hitzartu dute, George Bushek gehien kutsatzen duten 15 herrien artean egiteko asmoa baztertuta."

Berria > 2007-06-09



E gubakoitzean bukatu zen Alemaniako bainuetxe batean G8aren, hots, munduko zortzi herrialde aberats eta botere tsuenen bilera. Hainbat erabaki hartu dituzte: munduak euren menpean jarraituko duela; zenbateko eskupekoak bidaliko duten Afrikako eta Asiako lekurik txiroenetara; eta mundua hom-damenditik salbatuko lituzkeen neurrien ezarpena berriro ere atzeratzea.

Batzuek esaten dute beranduegi dela dagoeneko klima alda-ketak eragingo dituen efektu suntsitzaleak ekiditeko; baina, nahi-taez, datozen urteetan hartzeari beharreko erabakien artean, eredu energetikoarenan izango da garrantzitsuena. Eztabaida hone-tan izen bat nabarmenzen ari da gehien, James Lovelock zientzialari ingelesarena. Gaia Hipotesiaren aita izanik, ekologis-tek aita pontekotzat hartzeari zuten baina, gero, energia nukle-arren alde azaldu zenean, etsai-tzat. Lovelock-ek dio CO2 emisio-ak gutxitzeko alternatiba erreal bakarra energia nuklearren sus-tapena dela. Energia eolikoa, eguz-kitikoa eta beste energia berdee-ri buruz galdu ziotenean, hauxe erantzun zuen: "Bai, horiek ere balio dute. Baino imajinatu, ni medikua naiz eta kontsultara gai-xo larri bat etorri zait. Ez dut sen-datuko bakarrik akupuntura era-biliz, ezta?"

G8ko erabakiak, Kyoto eta enparauak ikusita, argi dago inork ez duela energiari uko egiteko inolako asmorik. Gainera, non dauka-gu legimitatea Txina, India eta atzetik datozen biharko poten-tziei ez kutsatzeko esateko; guk orain arte eman diegun etsen-plua ikusita?

Gaur egun, 443 erreaktore daude indarrean munduan, baina bakarrik Europako herrialde gutxi batzuek ateratzen dute elek-trizitate gehienena energia nuklearretik: Frantzia dugu aurrena mun-duan, eta erabiltzen duen energia osoaren %78,5 da nuklearra.

70eko eta 80ko hamarkadetan guztiok ibili ginengi Nuklearrik? Ez, eskerrik asko pegatinarekin, baina munduaren martxa zein den ikusita, beharbada laster ez da beste aukerarik geldituko.

"Datozen urteetan, energia-ereduaren erabakia izango da garrantzitsuena"

"Argi dago inork ez duela energiari uko egiteko inolako asmorik"



KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> ARRASATE
Gaztaren eta Ardoaren eguna ospatu zuten zapatuan, Mondrak eta Udalak antolatuta > 10



> BERGARA
Udaletxeen egongo da herriko liburutegi berriaren maketa ikusteko moduan > 11



> ARETXABAleta
Erabiltzeko moduan daude dagoeneko llargi plaza aldeko lur azpiko zazpi edukiontzia > 13

OÑATI > KORPUS JAIA

Eguzkiaren beroean egin dute oñatiarrek Korpusetako prozesioa

JENDE ASKO

Herriko jende mordo bat egon zen atzo prozesioa ikusten

SAN MIGUEL

Juan Antonio Agirianok 25 kilotako jantzia eroan zuen soinean

DANTZARIAK

Eguzki galddatan aritu ziren dantzariak kriskitinak eskuetan

EDURNE BURGAÑA > OÑATI

Oñatiko patroia San Miguel bada ere, San Miguel jaietan ez ezik, Korpusetan jende mordo bat biltzen da herrian. Han bizi ez direnak ere etxera bueltatzen dira egubakoitzean hasi eta domekan bukatzen diren jaietan parte hartzeko. Aurten ere, Oñati lepo bete da.

ZERURA BEGIRA

Atzoko goiza trumoi hotsekin hasi zen eta bat baino gehiago zerura begira egon zen, euri tanten bel-dur. Baino ostareak egiten hasi



FORUEN PLAZAN San Miguel eta Apostoluak, Oñatiko plazara ailegatzen.

EDURNE BURGAÑA

eta eguzkia ere irten zen Oñatiko zeruan. Trumoien hotsa kanpainen hotsek ordezkatu zuten; plazan, gogor entzun ziren, nahiz eta herriko beste bazter batzuetan ez ziren hainbeste entzun; normalean, herriko kanpai guztiak jotzen dute.

Goizeko 10:00etan, prozesioko irudiak San Miguel Parrokiari eroan zituzten. San Miguelen irudia eta korporazioa 10:45 aldera iritsi ziren parrokiara.

Meza nagusia egin zuten 11:00etan, eta Oñatz dantza talde-

koek altarean dantza egin zuten. San Miguel eta Apostoluak Santa Ana Antzokian jantzi ziren, eta aurten ere, jendea bertan egon zen gizonak nola aldatzen ziren ikusteko. Handik parrokiara bidea dantzariak lagunduta egin zuten.

Ondoren, Korpuseko prozesioa egin zuten herriko kale nagusieta. Ibilbidea ihiek (oñatiarrerrez, ixaak) markatuta zegoen.

Arten Jaunartzea egindako haurrak, aingeruak, txistulariak, santuen irudiak, musika banda-koak, Apostoluak eta San Miguelen parte hartzen dute prozesioan, besteak beste. Guztien inguruan dantzau Oñatz taldeko bederatzitako dantzari; Julen Kortabarria kapitaina, dantzari urdina, buru.

ALDAKETAK

Eguzkiak gogotik ematen zuen 12:00etan Oñatiko plazan, eta izerditan blai aritu ziren dantzariak batetik, eta Apostoluak eta San Miguel, bestetik, poliki, soinean zituzten jantzen pisua zela-eta.

Arten, gainera, San Miguel aldatu dute. Apostoladuaren Kofradiak hiru urtero aldatzea erabaki zuen, eta hala, aurreko hiru urtetan rola bete duen Fernanado Diazek Juan Antonio Agirianori eman zion atzo lekuoa.

Kale Zaharreko 8. zenbakiko obrak direla eta, aldarea ere leku aldatu dute. Botika aldamenean egoten da, eta atzo metro batzuk gorago zegoen, plaza aldera.

Foruen Plazan amaitu zen prozesioa. Parrokoak eskuetan zeukan Kristoren Gorputzari erreberentzia egin zioten dantzarietan eta irudi santuak parrokiara bueltau zituzten, datorren urtera arte.

Julen Kortabarria > Dantzarien kapitaina

"Ardura handia ematen du urdinez jantzita egoteak"

E.B. > OÑATI
Oñatiko Korpusetan garantzi handia daukate dantzariekin. Egubakoitzean hasi eta domekara arte dantzan ibiltzen dira. Julen Kortabarriarekin, dantzarien kapitainarekin, hitz egin dugu.

Orain hiru urtera arte, Irizar familiakoak izan dira dantzarien kapitainak?

Familia horretan dantzari mutilik ezen geratzen, eta niri egokitutiztai-dan hurrengoa izatea; momentuan esperientzia handiena zuena neu nin-tzelako izango zen.

Zer sentitzen da denak gorritz eta zu urdinez jantzita egotean?

Ardura handia ematen du urdinez jantzita egoteak. Nik esaten diet noiz hasi eta noizgeratu dantzan, eta non-

dik nora ibili. Baino, azken finean, taldeko beste kide bat naiz.

Noiz hasi zinen dantzetan?

Orain hamar urte hasi nintzen, 1997an. Umetan ere ibili nintzen, eta orduko taldekoak gero futbolean ibilten ginen eta berriro dantzetan has-tea proposatu zituzten. Umetako taldea ia-ia berriro ere hasi ginen.

Astean zenbatentsegu egiten dituzue?

Urtean zehar, bi egiten ditugu, baina emanaldi garrantzitsu bat inguratzenean, hirura pasatzen ditugu. Zapatauetan egiten dugu hirugarrena. Egun horretan kanpoan ikasten dutenak ere etortzen dira.



JOSETXO ARANZABAL

Hiru egunetan, zenbat ordu egin dituzue dantzan?

Egubakoitz goizean baserriean eta arratsaldean eskoletan; zapatuau, goiz eta arratsalde kalean, eta domeka goizean, prozesioa, eta arratsaldean, kalean: guztira, hamabost bat ordu. Oso gogorra izaten da. Gainera, kriskitinak jotzeak besoak nekanea eginda uzten ditu.

Kapitain noiz arte izateko asmoa?

Burutik ez zait pasatu. Orainoz, lanak eta bizitzak uzten didate dantza jarraitzen. Baino egunen batean, jendeari bidea ixten nabilela ikusiz gero, edo beste zerbaitengatik, utz egingo nuke. Denborak esango du.

JAIA > GAZTA ETA ARDO EGUNA

Kalitate eta aukera handia izan zen Ardo eta Gazta Egunean

Gazta lehiaketan 20 bat partaide izan ziren, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroakoak

Goizean ibili zen jende gehien; arratsaldeko zaparradek ilundu egin zuten jaialdia

A.G. > ARRASATE

Goiz parte bikaina baina arratsalde triste samarra izan zituen Mondrak eta Udalak antolatutako II. Gazta eta Ardoaren egunak.

Hala, 11:00etatik aurrera egon ziren Herriko plazan eta Portaloi inguruan postuak, eta jende asko ibili zen gazta, ardoa eta txorixoa probatzentz; baina arratsaldean bota zuen euri zaparrada eta haizeteak ilundu egin zuen jaialdia, izan ere, aurreikusita zegoen Giokelaren saiheski-jana bertan behera utzi behar izan zuten. Postuak plazako arkupetara era man behar izan zituzten.

GAZTA LEHIAKETA

Gazta lehiaketari dagokionez, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroko hoge bat gaztaginek ekarri zituzten euren produktuak, 11 bat postutan. Azkenean, bi sari eman zituen epaimahaia: San Prudentzioko Aierdi baserrikoek irabazi zuten lehenengoa, eta Azpeitiko Berastegi baserrikoek, bigarrena. Lehiaketako gazta guztiak labeldunak ziren.

Epaimahaia, berriz, osatu zuten honako aditu hauek: Zelai-Zabal jatetxeko Alberto Elortzak; Aldanondo gazta enpresako Joakin Aldanondok; Ugaran jatetxeko Patxi Barrutiak, Sara Merenderoko Fernando Crespok eta Elorregi auzoko Jesus Osa base rritarrak.

Lehiaketaz gainera, Herriko Plazan gaztak saltzeko postuak ere ipini zituzten goiz partean.

ARDO-DASTATZEA

Bestalde, eguneko beste protagonista ardoa izan zen. Ardogintzan adituak diren herrietako 39 bodegatik ekarritako produktuak izan ziren, Portaloian eta Herriko Plazan. Beltzak gehienak, baina zuriren bat ere ekarri zuten, Errioxa, Nafarroa eta Duero Erridera jatorri izenekoak, besteak beste. Guztia ere urtekoak edo kriantzakoak. Solaguen, Ostatu edo Ikasle moduko markak egon ziren probatzeko.

Horrez gainera, egunerako bereziki prestatutako paketetxoa erosteko aukera ere izan zen: bost euroren truke, ardo kopa, Mondra futbol taldearen ereserkiaren diskoa eta ardoa eskuratzezko 50 zentimoko tiket bi –urteko ardoaren kopa bat, tiket baten truke; eta kriantzakoaren kopa batek, bi tiketen truke.

MONDRA ETA GOIKOBALU

Bukatzeko, goizeko jardunean Goikobalu abesbatzak ekitalditzoa egin zuen. Eta Mondra futbol taldeak Mikel Otxoa arrasatearrari omenaldi berezia egin zion. Mondrako jokalari guztiak sinatutako kamiseta eman zioten Otxoari. Ezbehar baten ondorioz, gurpil-aulkian dago Otxoa.



POSTUAK Ardoa eta gazta probatzeko aukera izan zuten herritarrek.



JOSETXO ARANTZABAL



OMENALDIA Mikel Otxoari Mondraren kamiseta sinatua eman zioten.

JOSETXO ARANTZABAL

EPAIKETA > GELMA AUZIA

Jose Maria Loitik eguen goizean deklaratu zuen Bergarako epaitegian Gelma auzia dela-eta

Gelmarekin lotutako auziaren barruan, prebarikazioa, diru publikoa bidegabe erabiltza eta kohetxo egin izana leporatu zizkioten alkate ohiari

U.M. > ARRASATE

Joan den eguen goizean deklaratu zuen Jose Maria Loitik Bergarako instruksioko bigarren zenbakiko epailearen aurrean.

1997tik 1999ra Arrasateko alkate izan zenari leporatzen diote azken lau urteotan alkate izan den Inazio Lakuntzari leporatzen dizkioen hiru delitu berak: kohetxo –funtzionario-eroske-

ria-, prebarikazioa –euren egin-kizuna ez betetza– eta diru publicoa bidegabe erabiltza, Gelma-ko etxebizitzekin lotutako auziaren harira.

ABENDUAN, EZIN

Berez, Jose Mari Loitik joan den abenduan deklaratu behar zuen inputatu moduan. Auzi horretako beste bi inputatuek, Inazio

Lakuntzak eta Javier Guibertek, Obenerrekako enpresaburuak, (Gelma-ko etxeen promotorea) abenduan deklaratu zuten. Orduan, Loiti ez zen azaldu, eta ekainerako txanda eman zion epaileak.

Auzi horretan akusazio partikular moduan Ezker Batua alderdia dabil. Hala, abenduko jardunean leku moduan izan ziren alderdi horretako zinegotzi Ander Rodriguez eta Ines Aldai, EAJko zinegotzi izan ostean, Talde Mistora pasa zena.

Hala, Ezker Batuak adierazitakoaren arabera, joan den eguneaneko deklarazioan Loitik ukatu egin zuen Gelmaren eta Udalaren arteko negoziaketan parte hartu izana.

Jose Maria Loitiri dagokionez, berriz, harekin harremantzen ipini arren, ez du nahi izan

ezer deklaratzerik, eta ez ditu ez baiezta eta ezta ukatu ere Ezker Batuak esandakoak.

GRABAZIOAK

Hori bai, Ines Aldai jarduneko zinegotziak hainbat elkarritzakaren grabazioak aurkeztu zituen frogatzen abenduan: Inazio Lakuntza alkatearekin, Luis Urkiza aholkulari ekonomikoarekin, EAJ barruan izandako elkarritzeta eta Hirigintzako teknikari buru Juan Antonio Urdangarin-kin egindako elkarritzak, bestetako beste. EBren esanetan, horietako grabazio baten arabera, EAJko batzar batean grabatuko, Loiti izan zen Gelma operazioaren ardua bere gain hartu zuena eta Guiberten eta EAJren artean zubilanak egin zituen.

Grabazio horien transkribapena egiten dabilta orain.

ZERBITZUAK > ARRIZURIAGAKO LIBURUTEGIA

Liburutegi berriaren proiektua aurkeztu dute

Lau solairu izango ditu, eta espazio zabalak eta argia izan dituzte kontuan proiektua egiteko


Maketa osoko bilkuren aretoan egongo da ikusteko moduan, hilaren 25era arte

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Arrizuriaga jauregian egingo duten liburutegi berriaren proiektua aurkeztu zuten egubakoitzean Udaleko ordezkariek eta proiektua egin duen arkitektoak. osoko bilkuren aretoan.

Arrizuriagako liburutegiak lau solairu izango ditu, bakoitza 500 metro koadro inguruoa, eta aurrekontua da 2.585.000 eurokoa. Jauregiaren inguruau dagoen berdegunea ere diseinatu edo

berriztatuko dute. Hori ez da eraikinaren proiektuarekin batera sartzen, ordea.

KRISTALEZKO PARETAK
Donostiako Koldo Mitxelena edo Oñatiko kultura etxea egin duen arkitekto bulego berberak egin du Arrizuriagako proiektua. Miguel Angel de la Hoz arkitektoak azaldu duen moduan, "Ertzaintza egon zen garaian, barruko hormak eta estruktura



AURKEZPENA Muruamendiaraz, Gallastegi eta De la Hoz maketaren aurrean. O.E.

batzuk indartu egin zituzten, eta horiek bota egin ditugu. Saiatu gara espazio zabalak egiten, eta argia kontuan izan dugu distribuzioa egiterako orduan. Argia aprobetatzeko, kristalezko paretak ere sartu ditugu proiektuan".

Banaketari buruz, "beheko solairu egingo dira ekitaldiak eta erakusketak egiteko aretoa eta papera gordetzeako biltegia, adibidez. Lehen solairuan, umeen liburutegia egingo da, eta

horrek kanpotik ere izango du sarrera; bigarrenean, alde baten helduen liburutegia egingo da, bi altura izango dituena, eta beste aldean, ikus-entzunezko produktuen gunea", azaldu du arkitektoak. Eraikinaren sarreran ere aldatu egingo dute; albo baten egingo da gero.

Jarduneko alkateak esan zuen bezala, "proiektua eginda dago, eta hurrengo Udalak atera beharko du aurrera".

GAZTETXEA

Zazpigarren urteurrena ospatuko du gaztetxeak

Hainbat ekitaldi antolatu dituzte, datorren domekara bitartean egiteko

O.E. > BERGARA
Bergarako gaztetxeak zazpi urte bete ditu eta, hori ospatzeko, ekitaldiz betetako astea prestatu dute, lelo honekin: 7 udaberri loratzen.

BAZKARI BEGETARIANOA

Antolatutako lehen ekitaldiak pasa den asteburuan bertan egin zituzten, baina gaurtik, astelehena, datorren domekara arte ere badago zer ikusi, entzun edo dastatu. Eguaztenean, ibarreko punkaren historiari errepasoa egingo diote 18:30ean, adibidez, eta egunean, Sahararen gaineko hitzaldia egingo du ikasle talde batetik, ordu berean. Egubakoitzean, kalejira eta kontzertua; zapatauan, bazkari herrikoi begetarianoa, kale antzerkia eta Txapa jaia eta, domekan, hip-hop festa.

KULTURA > HERRIA EZAGUTZEKO BIDEOA

Herriari buruzko bideo bat atera dute, eta salgai dago

Kultura etxean eta turismo bulegoan daude salgai bideoak, bost eurotan

O.E. > BERGARA
Bergarako Udalak herriari buruzko bideo bat atera du, herritarrek herria hobeto ezagutzeko. Euskaraz eta espainolez dago bideo hori, eta herriaren industriari edo komunikazioari buruz hitz egiten du, bestea beste.



BIDEOA Bergarari buruz atera duten bideoaren kutxa.

MILA KOPIA

Bizkaiko Galdare enpresak egin du bideoa. Oraingo, mila kopia atera dituzte bi hizkuntzatan: euskaraz eta espainolez. "Bigarren edizioan, posible da ingelesez edo frantsesez ere ateratzea", esan du Alberto Urigoitiak, Galdare enpresako arduradunak.

Bideoa salgai jarri dute kultura etxean eta turismo bulegoan, eta bost euro da prezioa. Bestalde, astelehenetik hilaren 25era arte, osoko bilkuren aretoan ere egongo da ikusgai.



MARIAREN LAGUNDIA

Lagundiko ikasleak, herriko eraikinak ikusten

Mariaren Lagundia ikastolako hirugarren mailako ikasleek herriko eraikinak hobeto ezagutu dituzte, kanpotik datozen turistak bezala. Ibilbide gidatua izan dute, irakasleak eta turismo bulego teknikari batek lagunduta. Ikasleek, ordea, argazki kamera baten ordez, papera eta boligrafoa edo arkatza eraman dituzte aldean. Eraikinen izena, kokapena, armarria eta irudien inguruo datuak apuntatu zituzten ikasleek.

Herriko alde zaharrean egin dute eraikinen bisita gidatua, eta ikusitakoari eta ikasitakoari buruz lan bat egin dute gero ikasgelan.

Pedro Luis Ormazabal > Argazkilaria

"Erakusketa, Korpus eguneko prozesioko unerik hunkigarrienak jaso ditut"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Pedro Luis Ormazabal argazkilari bergararrak 30 lan jarri ditu ikusgai Oñatiko Kultur Etxean. Korpus egunean, hainbat urtetan jasotako argazkiak dira. Erakusketa zabalduzu zuen egunean, Bergarako argazkilariarekin hitz egin genuen.

Oñatin ikusgai daudenak argazkiak dira?

Hemen dauden irudiak, jatorriz, argazkiak dira. Bada, digitalizazioarekin garbitu eta txukundu egiten ditut; hala, norberak bere kontrasteak ematen dizkio. Jatorrizko argazkia handitzean, galtzen duen kalitatea, beste elementu batzuekin betetzen dut. Hala nola, pintura era biltzen dut.

Mihiseak erabiltzen dituzula esan diguzu, marrazkilarien antzera.

Gaur egun, teknika mistoa asko erabiltzen da. Eta nik mihi-sea edo lientzoa erabiltzen dut euskarri moduan, efekto berezi eta ikusgarriagoak lortzeko.

Kultur etxearen jarri duzun erakusketa, tamaina askotako lanak daude; batzuk oso handiak dira. Nola aukeratzentzu tamaina?

Argazkian jaso dudan irudiak duen garrantziaren arabera; adibidez, dantzariak San Migelen aurrean dantzan ari direnean. Argazkia ona bada, handitu egiten dut, eta urrutitik ikustean lortzen den kontrastea izugarria da.

Hiru metroko hiru argazki daude; beste batzuk, aldiz, txikia-goa dira. Baino guztia dira politak eta ikustekoak.



Pedro Luis Ormazabal argazkilari, erakusketa ikusgai jarri duen argazki baten ondoan.

MIREIA BIKUÑA

Beste pintura eta detaile batzuk transfer polaroid sisteman eginda daude.

Irudiekin, tripitiko bat egiten da, eta, sekuentzia osoa ikusten da. Teknika hau ez da batere erreza. Ni 90eko hamarkadan hasi nintzen teknika honekin, Ameriketako Estatu Batuetan.

Zer da, zehatz mehatz, transfer polaroid teknika?

Teknika hori mistoa da; argazkilariaritzaritza eta margolaritzaren artean, erdibidean dagoen teknika da. Horren bidez, argazkiak mihi-sea edo lientzotan imprimitzen ditut.

Madrilen bizi den artista berargarra

Bergaran jaio zen Pedro Luis Ormazabal argazkilari, 1973. urtean. Argazkilariaritzaritza munduan, Ramon Murgiointorekin batera hasi zen. Bergaran jaiotako argazkilari hori Madrilen bizi da 1994az gerontik.

Bada, Oñatiarekin harreman estua du Ormazabalek. Bere ama oñatiarra da, eta bere familia erdia Oñatin bizi da. Halaber, Oñatin erroldatuta dago.

Erakusketa ikustera lasai eta denboraz etorri behar da?

Edozein erakusketa ikusteara, presa barik joan behar da; eta, noski, nirea ikustera ere bai. Gainera, erakusketa bildu ditudan argazkiak, pertsona ezagunak ikusteko aukera dago. Halaber, aspaldiko argazkiak, gaur egun helduak diren neska-mutikoak ikus daitezke.

Erakusketa ikustera datorrenak zer ikusiko du?

Erakusketa horrek honakoa erakusten du: Korpus egunaren inguruko pausorik nagusienak zeintzuk diren; Korpus eguneko

detainerik nagusienak bildu ditut erakusketa; hala nola San Migelek egiten duen buelta. Argazki txikietan, aldiz, detaileak biltzen ditut, esaterako, San Migel, Apostoluak eta Kristo nola janzen diren. Orokorean, denetik ikus daiteke.

Erakusketa orden zehatza jarraitzen du?

Bai. Lehen-lehenik, bezperatik, protagonistak diren dantzariak jaso ditut. Haien atzetik, kofradiako kideak nola janzen diren; santuak parrokiara nola eramatzen diren, eta elizatik prozesioa nola irteten den. Amaitze-ko, plazako unerik hunkigarri-enak ikus daitezke. Hala, argazkiek sekuentzia normala jarraitzen dute.

Guztira, 30 argazki bildu ditu zu. Noizko argazkiak dira?

Ni argazkizalea nintzenean hasi nintzen, 1970ean. Handik aurrera, urte askotan jaso nituen argazkiak. Iaz ere, erakusketa egiteko aukera izan nuen; baina, dantzariekin aldarean dantza egiten duten uneko argazkia falta nuen. Iaz egindako argazkia ere erakusketa ikus daiteke. Korpus egunean, behar-beharrezko irudia da hori.

Erakusketa noiz arte egongo da ikusgai?

Inagurazio ekitaldia ekainaren 7an egin genuen. Hala, erakusketa zabalik egongo da ekainaren 22ra arte. Oñatiko Kultur Etxean dagoen erakusketaren ordutegia hauxe da: arratsaldeko seiak eta erdietatik, zortziak eta erdietara.

Osoko Bilkura berezia egin zuten ikasleek

Oñatiko hainbat ikastetxetako 6 eta 18 urte arteko ikasleek, Eskolako Agenda 21eko emaitzak aurkeztu zituzten, eguneean egin zuten Osoko Bilkura berezian. Haien iradokizunak entzuten, Lurdes Idoiaga alkatea, eta beste udal ordezkari batzuk egon ziren.

Maila bakoitzean, gai bat buruzko ikerketa egin dute neska-mutikoek ikasturtean zehar. Hala, argiteria, kutsadura, berokuntza sistemak edo ura dira herriko ikasleek aztertu dituzten gaietariko batzuk.



MIREIA BIKUÑA

> MUSIKA
Jose de Azpiazu musika eskolak zabalik du matrikulazio epea

Gorritxitxi eraikinean egoitza duen Jose de Azpiazu musika eskolak zabalik du 2007/2008 ikasturterako matrikulazio epea, eainaren 20ra arte. Matrikula idazkaria orduetan egin behar da.

Lau eta bost urteko neska-mutikoak dira musika eskolan izena eman dezaketen gazteenak: goitik, aldiz, ez da inolako adin mugarik jarri.

Halaber, adinaren arabera, jolasak, dantzak, musika tresnak eta hizkuntza musikalak lantzen dituzte. Zortzi urtetik aurrerakoek era ezberdinatako taldetan eta abesbatzeta parte hartzen aukera dute.

ARETXABAleta > ZERBITZUAK

Erabil daitezke lur azpiko zazpi edukiontziaik

Hainbat tabernarik azaldu dute edukiontziek aho txikiagia dutela; Udalak, berriz, legezkoak direla

M.A./I.B. > ARETXABAleta

Ilargi plaza parean jarrita zeuden edukiontzia, zazpi guztira, dagoeneko lurperatu dituzte eta era-biltzeko moduan daude.

Uste baino luzeago iraun dute lanek. Hasieran, Udalak hiru hilabete inguru aurreikusi zituen edukiontzia ekarri eta lurperatzeko. Azkenean, egin beharreko proba guztia egin eta gero, era-

bilgarri daude. Zazpi dira edukiontzia berriak: lau, etxeetako zabor organikoarenak; bat, paper eta kartoiarenak; beste bat, beirarenak; eta azkena, plastiko eta latendako. Gainera-ko edukiontzietako zaborrarenkin batera jasoko dute lurperatutakoena ere ere.

Dena dela, Ilargi plaza inguru hainbat tabernarik jakina-

razi digute edukiontzia ahoa txikiagia dela zabor poltsa handiendako; hortaz, ezin dituztela edukiontzia gura beste ibili.

LEGEZKO EDUKIONTZIAK

Horren gainean Udalera jo dugu, eta udal ordezkariak azaldu digute jarritako edukiontzia legezkoak direla, gainerako herrietan dauden modukoak. Horrek batera, Udaleko ordezkariak gaineratu dute edukiontzie aho handiagoak jartza arriskutsua izan daitekeela.



ZAZPI EDUKIONTZI Argazkian Ilargi plaza inguruan jarri dituzten lur azpiko edukiontzia berriak.

MIRARI ALTUBE

ARETXABAleta-ESKORIATZA > AISIALDIA

Udaero programa, 12 eta 16 urte bitartekoendako uztailoko plana

Uztailaren 3tik 18ra bitartean, hainbat irteera, ikastaro eta ekintza antolatu dituzte bi udaletako gazteria zerbitzuek

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuak, uztailerako Udaero programa antolatu dute.

Aurten, aisialdirako programa hori gurasoek aurkeztek batzarrak deitu dituzte. Aretxabaletan, etzi, eguztenea, egingo dute. Gaztelekuak izango da, 18:00etan. Eskoriatzan, berriz, egunean egingo dute. Hangoa kultura etxeak izango da, eta gurasoak 18:00etan batzartuko dira.

Aspaldian, Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udalek gazteei zuzendutako ekintzak elkarrekin egiten dituzte. Bi herrietako gaztelekuak ere halako dinamika daramate azken aldian.

BI HERRIETAKO GAZTEENDAKO

Udaero programa bi herri horietan bizi diren 12 eta 16 urte bitarteko gaztxoei zuzenduta dago.

Uztailerako prestatu duten egitaraua oso zabala da; hilaren 1etik hasita 18ra arte egingo dituzte ekintzak, eta, tartean, irteera dezenetegi egingo dituzte.

Hala ere, Gazteria Zerbitzuetako arduradunek jakinarazi digute ekintza bakarretarako izeña emateko aukera ere badagoela. Horretarako azkeneko eguna ekainaren 22a izango da. Interesatuek aipatutako bi herritako edozeinetara, Gazteria Zerbitzuetara, jo beharko dute.

Aukera dute, baita ere, e-posta (gazteria@eskoriatza.net edo gazteria@aretxabaleta.net) edo telefona (943 79 54 46 edo 605 70 89 46) erabilita, izena emateko.

IRTEERAK ETA IKASTAROAK

Hilaren 3an, Gamarrara irteera egingo dute; 4rako, berriz, mendilirteera antolatu dute. Hilaren 5ean, eskaintza bikoitzia izango dute gaztxoeek: *paint ball*-ean lehiatzeaz gain, hondartzara joango dira.

Bigarren asterako ere, hainbat ekintza antolatu dituzte: hilaren 10ean, Landara irteera egingo dute; eta 12an, berriz, afamerienda eta film emanaldia. Bukatzeko, hilaren 18an, Gorlizera irteera egingo dute.

Ekintza guztietan esku hartu gura duenak 65 euro ordaindu beharko ditu. Bestela, ekintza bakanetara joa daitezke.



JOSETXO ARANTZBAL

EAk udal karguak eskatu ditu

EAE-ANVko ehun kide eta jarraitzaile batu ziren zapatuan Aretxabaletako plazan, han lortutako lau hautetsiek kargua jaso dezaten eskatzen, eta hori ahalbidetzeo dei egin zieten EAJ, EA, Ezker Batua-Zutik eta Aralarri: "Kargu lapurreta ekiditeko aukera dugu, LOREG legearen 182.2 artikuluak aukera ematen du", esan zuten.

ARETXABAleta > ERAKUSTALDIA

Contact-inprobisazio dantza ikuskizuna, egubakoitzean

Errekabarren kaleko plazatxoan egingo dute erakustaldia, Jaikik antolatuta

Jaiki elkartea hainbat aretxabaletarrek osatzen dute, eta azken urteotan hainbat ekintza antolatzen dihardute. Batez ere, dantza, joko eta perkusioen gainerako alorrik landu izan dituzte orain arte.

Horrez gain, joan den urtean Aretxabaletan contacten gainerako ikastaroa egin zuten arren, ikasten ibili zirenak oraindik noizbehinka elkartu egiten dira contact dantza egin eta elkar ikusteko.

Jaiki elkarteko esanetan, contact dantza polita eta ikusgarria da, gehienetan bi lagunen artean egiten dutena.

AHOTSA LANDU GORPUTZAREKIN
Jaiki elkartekoek jakinarazi digute uztailean gorputzaren mugimenduen bitartez ahotsa lantzeko ikastaroa egingo dute. Bi arratsaldekoa izango da.

Horrez gain, urrian, dantza aske eta klovn ikastaro bana egingo dituzte.



CONTACT-INPROBISAZIOA Gehienetan pertsonen artean dantzatzen da. JAIKI



JUSTINA ELEXPURU Überako margolaria, Espaloian zintzilikatu duen margolan baten alboan.

ARAMAIO > HEZKUNTZA

Ekitaldiz betetako ikasturte bukaera dute eskolakoeak

Etzi, eguztena, Urkiolara joango dira oinez, San Antonio eguneko azokara

U.M. > ARAMAIO

Makina bat ekitaldi dabilta egiten San Martin Eskolako neska-mutikoak ikasturte bukaera inguru honetan. Eta datozen bi asteotan ere halaxe ibiliko direla iragarri du Blanca Mendialduak, eskolako zuzendariak.

Hala, etzi, eguztena, 3, 4, 5 eta 6. mailako 50 bat ikasle Urkiolara joango dira oinez, bizpahiru orduko ibilaldian. Kalkulatzen dute, Aramaiotik 09:00etan irteten badira, 13:00ak inguruan iritsiko direla Urkiolara. Bazkaldu, San Antonio eguneko azoka ikusi eta, 15:00ak inguruan, autobusa hartuko dute Aramaiora bueltatzeko.

Horrez gainera, hilaren 19an, Etxaguen eta Gantzaga bisitatzen joango dira, eta ekainaren 21ean, ikasturteari agur esateko jaia egingo dute.

KONGOKO BIZIMODUA, BERBAGAI

Bestalde, joan den egunean Kongo berbagai izan zuten 5. eta 6. mailako ikasleek. Gobernuz Kanpoko Harreman elkarteak Kongon 38 urtean misiolari izan den moja bat gonbidatu zuen, Aramaioko ikasleei hango bizimodu latza esplikatzeko. Era berean, ikasleek Harremaneko ordezkarri eman zioten Erretiratuen Egunean batu zituzten 570 euroak, behartsuenei laguntzeko.



HARREMAN Ikasleak, Harreman GKEko kidearekin.

SAN MARTIN ESKOLA

ELGETA > MARGO ERAKUSKETA

Justina Elexpuruk 21 lan ditu ikusgai Espaloian

Askotariko margolanak, azken bost urteotan egindakoak, zintzilikatu ditu Espaloian Elexpuruk

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Erretratuak, paisaiak, natura hilak... askotariko margolanak zintzilikatu ditu Justina Elexpuruk Elgetako Espaloia Kafe Antzokian.

Eguaztenean jarri zuen erausketa, baina egunean inauguruatu zuen, lagunartean.

JUANJO ALTUNAREN IKASLEA

Duela bost urte hasi zen margotzen Justina Elexpuru überarra. Juanjo Altuna bergararraren tainerrean eman zituen lehenengo urretsak eta oso esperientzia polita izan dela aitoritu digu.

Espaloian jarri duen erakusketa bost urte hauetan egindako

margolanekin osatu du. "Urtebetete egon naiz margotu gabe", esan digu. "Gaizki ibili naiz eskumako sorbaldatik, operatu berria naiz, baina ikasten jarraitzeko asmoa daukat".

Olio-pinturak dira Elexpuruk Espaloian zintzilikatu dituen margolan guztiak. Lehenengo salmentak ere lotu ditu dagoeneko. Erakusketa ikusi nahi izanez gero, hilaren 27ra arte duzue horretarako aukera.

ANTZUOLA > LITERATURA LEHIAKETA

Lau antzuolar saritu dituzte Koldo Eleizalde literatura lehiaketan

Ipuinen eta bertsoen atalean izan dira sarituak lau antzuolarak

Iratxe Aiestui, Andoni Iparragirre, Aitzol Iturbe eta Julian Ramirez dira sarituak

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Bergarako Koldo Eleizalde literatura lehiaketaren 22. aldiko sariak banatu zituzten aurreko asteko asteburuan. 489 lan jaso zituzten guztira.

Hiru ataletan antolatzen du Bergarako Udalak lehiaketa hori: ipuinena, bertsoena eta komikien. Lehenengo bi ataletan, lau antzuolarrek jaso dituzte sariak.

Bi antzuolarrek ipuinena atalean jaso dituzte sariak, eta bertsoen atalean, beste bik.

Ipuinei dagokienez, 1992a eta 1994a bitartean jaiotakoena mailan, Iratxe Aiestui antzuolarra eman diote lehenengo saria; *Maite dut* da Aiestuik aurkeztu-

tako ipuinaren izenburua. 1991n edo aurretik jaiotakoena mailan, bestalde, bigarren saria jaso du Andoni Iparragirre antzuolarrak, *Artzain batzen testamentua* ipuinarekin.

Bertsoen atalean, beste bi antzuolar saritu dituzte, biak maila berean, 1991n edo aurretik jaiotakoena mailan, hain zuzen ere. Batetik, Aitzol Iturbek *Hausnartzen* bertso-sorta aurkeztu zuen, eta lehen saria eman dio epaimahaiak; Julian Ramirez de Okarizek, bestetik, bigarren saria jaso du *Txakur txapelketa* bertso-sortarekin. Bergarako Ipintza institutuko ikasleak dira aipatutako lau antzuolarak.

Izena eman beharrik ez dago; interesa dutenek martitzenean entsegura agertu besterik ez dute egin behar. Herritar guztiak animatu nahi dituzte jaietan parte hartzera.

LARRAIN DANTZA IKASTAROA

Herriko jaiak gainean ditugula eta, Oinarin dantza taldekoak hasi dira prestaketa lanetan. Iaz bezala, Larrain dantza saioa antolatuko dute, seguruena, jaietako domekarako.

Ez dira, baina, Oinarin dantza taldeko kideak izango saio hori egingo duten bakarrak. Edozein herritarrek izango du aukera Larrain dantza ikasi eta parte hartzeko.

Bihar, martitzena, hasiko dituzte entseguak, eta martitzenero elkartuko dira. Uztailaren 10ean bukatuko da ikastaroa. Hitzordua 20:00etan jarri dute, Herri Ikastetxeko jolastokian.

Iaz, hogei bat lagunek parte hartu zuten, eta helburua da ahalik eta jende gehiena lortzea aurten ere. Iaz ibili zirenek zein berriek izango dute ikastaroan parte hartzeko aukera. Ez dago adin mugarik.

Izena eman beharrik ez dago; interesa dutenek martitzenean entsegura agertu besterik ez dute egin behar. Herritar guztiak animatu nahi dituzte jaietan parte hartzera.

LEINTZ GATZAGA

Baimenaren zain daude gasa izateko herrian

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Aurrera doaz hilabeteak eta oraindik ez daukate gasik Gatzagan. Iazko udazkenerako hitzeman zion Repsol enpresak Udalari, baina atzeratu egin da, asko atzeratu ere. Egin beharreko lan guztiak bukatuta dituzte, eta gas-tangak gertu daude. Oraindik ez daukatena baimena da, eta horretarako aldzikari ofizialean publikatu beharra dago jarduera eskaera. Paper kontru horiek Repsolek berak egin behar ditu, eta ondoren emanago dio baimena Jaurlaritzak.

Urtebete baino gehiago da gasaren kontua bideratzen hasi zela Udalbatza, eta gasa herrian ikusi barik desegin beharko da ekainaren 16an.

Kirola



> FUTBOLA

Mondrak bigarren erregionaleko kopa finala galdu du Idiazabalen > **16**



> ATLETISMOA

Txema Martinez nagusitu da Oñatiko Herri lasterketan > **18-19**



> PILOTA

Debagoineko lagunarteko esku pilotako finala jokatu da > **20**



> MENDIA

Txikirri-Txikirri mendi ibilaldia ospatu da Eskoriatzan > **20**

EUSKAL BIZIKLETA > IBARRETIK PASA ZEN ZAPATUAN

Aurreikusitako orduan iritsi zen Euskal Bizikleta gurera

IHESALDIA

Bi txirrindulari tropeletik ihes eginda iritsi ziren Oñatira

KANPANZAR

Kanpanzarreko bigarren mailako mendatea izan zen

AMAIERA

Zapatuko etapak Abadiñon izan zuen helmuga

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Aurreikusitako orduan iritsi zen Euskal Bizikletako tropela gure ibarrera. Zapatuan, 11:10ean sartu zen Euskal Bizikleta Oñatiko kaleetan. Ordurako, 54 kilometro eginak zituzten, eta beste 37 kilometro, egiteko. Udana gainetik sartu eta Epeletik irten, hori da txirrindulariek gurean egin zuten ibilbidea. Oñatitik pasata, Elorregin Arrasaterako bidea hartu zuten txirrindulariek. Arrasaten, herrira sartu gabe, Epeleten gora egin zuten, Elorrio aldera. Etapa Abadiñon amaitu zen.

IHESALDIA

Olakua eta San Lorentzo auzoak batzen dituen zuzengunean, jende mordoa bildu zen tropel profesionalari ongietorria egiteko. Lasterketako helikopteroak tropela gurera bidean zela abisatu zuen. Korpus jaietako dantzarien kriskitin soinuarekin heldu ziren txirrindulariak, aurreikusitako orduan, gainera. Lehenengo, bi txirrindulari pasaziren, tropeletik ihes eginda: Vladimir Efimkin errusiarra eta Adrian Palomares valentziarra. Gero, tarte txikiarekin, gainontzeko tropela pasaz zen Oñatitik. Bi txirrindulariek Loiolako (Azpeitia) tarteko helmugan egin zuten ihes.

Oñati pasatutakoan, Arrasate-rra hartu zuen lasterketak. Han,



TROPELA Irudian, tropela, Oñatiko Olakua eta San Lorentzo arteko zuzengunean.

JOSETXO ARANTZABAL

baina, zati txikia egin zuen Euskal Bizikletak, herrira sartu gabe, Epeleten, Kanpanzarrerako bidea hartu zuten-eta.

Egubakoitzean GOIENKARI Iban Velasco Arrasateko txirrindulariak esan zion bezala, Kanpanzar erabakigarria izan zen zapatukoan. Ihes eginda zeuden bi txirrindulariak bakarrik iritsi ziren Kanpanzarrera, baina, bigarren mailako mendatea igotzen hasi zirenean, tropelak Bizkairako bidea.

DATUA

15,80
KILOMETRO

Gure ibarrean txirrindulariek egin dituzten kilometroak 15,80 izan dira. Udanatik sartu ziren, eta, Oñati zeharkatu eta gero, Arrasaten, Epeletik hartu zuen tropelak Bizkairako bidea.

Fuerteventura Canaria taldeko Adrian Palomares harrapatu zuen. Hala, Efimkin errusiarra bakarrik egin zuen aurrera, eta Abadiñoko helmugara 52 segundoko aldearekin iritsi zen.

ERLOJUPEKO, BERTAN BEHERA

Zapatuan Tolosan hasi eta Abadiñon amaitu zen etapak 92 kilometro zituen. Hori goizeko zatia izan zen. Izan ere, arratsaldean, txirrindulariek erlojupekoari

egin behar zioten aurre. Abadiñon hasi eta Abadiñon amaituko zen 20 kilometrotako proba.

Baina, arratsaldean, txirrindulariek ekaitza jasan behar izan zuten. Hala, 17:22 zirenean, lasterketako antolatzaleek arratsaldeko erlojupekoa bertan behera uztea erabaki zuten. Sailkapen orokorrerako goizeko etapa bakarrak hartu zuten kontuan antolatzaleek.

IAZ, GATZAGAN AMAITU ZEN

Aurtengo Euskal Bizikletako edizioak iaz baino kilometro gutxiago egin ditu Debagoienean. Hala, iaz, Leintz Gatzagan amaitu zen lasterketako etapa bat eta, hurrengo egunean, Gatzagan bertan izan zuen hasiera hurrengo etapak.

Gainera, aurtengo edizioa, bost egunetako etapa izatetik, hiru egunetako etapa izatera pasa da. Goi mailako ziklistak erakartzeko modu bakarra hori izan da.

Constantino Zaballak irabazi du aurtengo Euskal Bizikleta

Atzoko etapa garaipena eta sailkapen orokorreko lehenego postua, biak eskuratu zituen atzo Constantino Zaballak Arrateko helmugan.

Aurtengo Euskal Bizikleta hiru egunetan jokatu da. Lehenengo egunean, Eibar eta Tolosa arteko 172 kilometro egin zituzten txirrindulariek. Tolosako helmugan, lehena Alberto Fernandez de la Puebla izan zen, 4:21:18ko denborarekin. Zapatuan, Tolosa

eta Abadiño arteko etapan, Vladimir Efimkin errusiarra nagusitu zen. Hala, sailkapen orokorrari begira, atzoko etapa izan zen erabakigarria. Txirrindulariak goizeko 9:30ean irten ziren Iurretatik. Aretio, Trabakua, Ixua, San Miguel eta Usartza igo ondoren, Arrateko helmugan Zaballa izan zen azkarrena, 3:58:57ko denborarekin. Sailkapen orokorrean, Zaballa, Jaksche eta Elias igo ziren podiumera.

EUSKAL BIZIKLETA 2007



TALDEA Argazkian, Mondrak bigarren erregional mailako taldea.

GOIENKARIA

FUTBOLA > KOPA TXAPELKETA

Mondrak bigarren erregionaleko kopa finala galdu zuen Axular taldearen aurka

Garaipeneko bi golak bigarren zatian lortu zituen Axular taldeak

AXULAR	2-0	
MONDRA		

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Mondrak eta Axular taldeak bigarren erregional mailako kopa txapelketako finala jokatu zuten zapatuau, Idiazabalgo Arizkorreta futbol zelaian. Sergio Oliven-

zaren taldeak ez zuen saririk izan. Axular taldeak zorte han-diagoa izan zuen atearen aurrean. Hala, kopa txapelketa Axular taldeak irabazi zuen.

GOLAK, BIGARREN ZATIAN

Zapatuau jokatutako kopa txapelketako finala oso parekatua izan zen lehenengo zatian. Ez ziren gol aukera garbi asko egon. Kontreraso baten, Mondrak aukera izan zuen markagailuan abantaila hartzeko; baina, arrasatearrek

ez zuten asmatu. Axular taldeak ere ez zuen golik egin lehenengo zatian.

Atsedenaren ondoren etorri ziren bi golak, eta, arrasatearren zoritzarrerako, Axular taldeak egin zituen. Hala, 0-1ekoarekin, Mondrak aurrera egin zuen, berdinakaren bila.

Bada, Axular izan zen bigarren gola egin, eta finala bere alde jarri zuena. Bi goleko abantailarekin eta defentsa sendoarekin, finala irabazi zuten.

"Pena hartu dugu amaieran", esan zigun Sergio Olivenza entrenatzaileak, "behin finalera iritsita, gure asmoa irabaztea zelako".

ATSEDENAK

Bigarren erregional mailako txapelketa bukatuta, orain, oporrak hartuko ditu taldeak. "Irailean pentsatzen hasi behar dugu. Oraingo, oporrak hartuko ditugu; baina, denboraldi berriarekin ahaztu gabe", azpimarratu zigun taldeko entrenatzaileak.

BERGARA > INFANTIL MAILAKO NESKAK

Bergarako neskak, Euskadiko txapeldunorde

Partidu guztian nagusi izan ondoren, amaieran, penaltietan, galdu egin zuten mahoneroek

A.E. > BERGARA
Euskadiko txapeldunorde geratu zen Bergarako infantil mailako taldea, zapatuau Getxon jokatutako norgehiagokan. Gipuzkoako Txapelketa irabazi ondoren, bergararrak ilusio handiarekin joan ziren bizkaitarren aurkako lehiara. Baina, Getxon, zoria ez zuten alde izan. Maite Aranzabalek sartutako golari esker, Bergarakoak nagusi izan ziren minutu askotan. Amaieran,

baina, bizkaitarrek berdindu egin zuten lehia eta, gero, penaltietan, nagusitu egin ziren.

BERGARARRAK, HASERRE
Bergarako entrenatzailea, Mikel Fernandez, *Pope*, haserre zegoen partidu amaieran: "Epailea oso txarto aritu da eta, gainera, ez dugu gure sisteman jokatu, zortzinako futbola, haienean baizik, zazpi-nako futbola".



TALDEA Bergarako neskak, Gipuzkoako txapeldunorde garaikurrekin.

GOIENKARIA

Nahi al duzu gasolina edo diesel Credikutxa bat?



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

Auto berria, motorra, karabana...
Nahi duzun guztia duzu **kutxa**. Ez daukazu urrunago
joan beharrik.

Jarri martxan zure **Credikutxa Automobila**,
baldintza bikain-bikainetan eta abiadura bizkorrean:

- Telefonoz: **902 10 32 10**.
- **kutxanet** bidez.
- Zure ohiko **bulegoan**.
- Eta **kutxazainetan**.



Gauzak, erraz.

 **kutxa**



PODIUMA Argazkian, Peter Kamais, Txema Martinez eta Julius Kiptoo, sariak jaso ondoren, xanpainarekin ospatzen.

JOSETXO ARANTZABAL

HERRI LASTERKETA > OÑATIKO NAZIOARTEKO LASTERKETA

Eguraldiari eta afrikarrei aurre eginez, Txema Martinez nagusi

Korrikalari
madrildarrak 28:51ko
denbora egin zuen
Oñatiko helmugan

Oñatiko Nazioarteko
Lasterketaren
bosgarren edizioa
jokatu zen zapatuan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Txema Martinez, Afrikako korrikalariak eta eguraldia izan ziren protagonista nagusienak zapatuan, Oñatin.

V. Oñatiko Nazioarteko Herri Lasterketaren hasiera arratsaldeko 7etarako zegoen iragarria; baina, ordu erdi lehenago, Oñatin bota zuen euri zaparrada ez zuen inork espero. Eurite hark ez zuen lasterketa bertan behera utziarazi; bai, ordea, lasterketa hasi aurretik iragarrita zeuden aurkezpen eta aurreskua.

Halaber, proba hasi aurretik botatako euriak ibilbideak zituen 10.000 metroak oso arriskutsu eta labainkor egin zituen. Fatma Marouaik, 2007ko Italiako kros txapeldunak, erorikoa izan zuen, eta Arrasatera eraman behar izan zuten, ospitalera.

Edozelan ere, postetxearen aurrean abiatu ondoren, eragozpen eta aurkari guztien gainetik, Txema Martinez gailendu zen

plazako helmugan. Korrikalari madrildarrak Behobia-Donostia eta Elgoibarko krosa irabazi ditu oraingo denboraldian.

AFRIKARRAK ETA MARTINEZ

Postetxearen aurrean irtenda, Unibertsitate etorbidetik Atzeko kalera hartzutzen korrikalariek. Plazako helmugatik pasa orduko, taldeko bat lasterketa buruan zegoen; talde hartan, Txema Martinez, Alex Kirui, Peter Kamais eta Abdelhadi El Mouaziz zeuden, besteak beste. Keniako korrikalariek jarritako erritmoari Txema Martinezek eutsi zion.

Atzetik, gainontzeko korrikalariak pasa ziren helmugatik; tartean, Rixtar Fernandez, Asier Osinaga eta Gaizka Romero oñatiarrak.

Lasterketak zituen zazpi itzuliak, lehenengo hiruretan, ez zen aldaketarik egin lasterketa buruan. Bada, laugarren itzulian, lau korrikalarik abantaila

hartu zuten buruan; Txema Martinez, Peter Kamais, Julius Kiptoo eta Alex Kirui ziren.

Oñatiko plazako helmugatik bosgarren aldiz pasa zirenean, Alex Kirui atzeratuta zegoen. Hala, lasterketa irabazteko lehia, hiru korrikalarien artean geratu zen.

Azkeneko itzulia egiteko, Unibertsitate Etorbidetik plaza aldeera hartzutzen, Txema Martinez zen lasterketa burua. Haren atzetik, metro gutxira, Julius Kiptoo agertu zen, eta hirugarren, Peter Kamais.

Amaiera bitartean, aldaketa bakarra egin zen hasierako postueta: Peter Kamais keniarrak, iazko antzera, lasterketa bigarren tokian amaitu zuen.

Emakumezkoen lasterketan, korrikalari beltzaranak izan ziren nagusi hasieratik bukaearra. Hain zuzen, Joan Aiyabei, Tigist Tufa eta Hellen Cherono igo ziren emakumezkoen podiumera.

sailkapenak

GIZONEZKOETAN LEHENAK

1. Txema Martinez	(28:51)
2. Peter Kamais	(28:54)
3. Julius Kiptoo	(28:58)
4. Tomas Kipkosgei	(29:01)
5. Alex Kirui	(29:10)
6. Abdelhadi El Mouaziz	(29:35)
7. Elisante Forro	(29:37)
8. Simon Kiiliu	(30:23)
9. Samuel Kalya	(30:48)
10. Driss Lakhouaja	(30:51)
11. Mohammed Elguarrha	(32:14)
12. Iker Iturralde	(32:41)
13. Jose Ramon Torres	(32:47)
14. Rixtar Fernandez	(32:51)
15. Jose Javier Cuadrado	(33:30)


EMAKUMEZKOETAN LEHENAK

1. Joan Aiyabei	(33:15)
2. Tigist Tufa	(33:43)
3. Hellen Cherono	(34:07)
4. Sintayhu Tushomei	(34:27)
5. Salome Simentwo	(34:37)
6. Maria Luisa Muñoz	(39:20)



EMAKUMEA Joan Aiyabeik (15) irabazi zuen lasterketa

J.ARANTZABAL



Noticias de Gipuzkoa Noticias de Gipuzkoa Noticias de Gipuzkoa Noticias de Gipuzkoa Noticias de Gipuzkoa



AZKARRENAK Argazkian bildu genituen lasterketako azkarrenak. J. ARANTZABAL



TXAPELDUNA Txema Martinez, bakar bakarrik iritsi zen helmugara; haren atzetik, Peter Kamais.

JOSETXO ARANTZABAL

"Hasieratik jarri dudan erritmoari bukaerara arte eusteko gai izan naiz"

M.B. > OÑATI

Peter Kamai eta Julius Kiptoo kenia-
rrekin lehia estua izan ondoren,
Taema Martínez madrildarra pozik
zegoen lasterketa amaieran.

Zer moduz joan da lasterketa?

Nire burua oso ondo ikusidut. Oso
gustura egin dut korrika. Lasterketa
hasieran egindako planteamendua
goitik behera bete dut. Hortaz, oso
pozik nago gaurko lasterketan egin
dudan lanarekin.

Zein zen gaurko planteamendua?

Afrikarrekin lehiatzea. Ikusi
duzuen modura, hasieratik haien tal-
dean sartu naiz, eta, nire erritmoa

jartzeko gai izan naiz. Bada, zailena,
erritmoari bukaerara arte euste da.
Baina gaur lortu dut, eta helmugara,
bakarrik iritsi naiz. Irteera lekuaren iku-
si dut afrikarrak zirela nagusi, eta fisi-
koki oso ondo zeudela. Horregatik guz-
tiagatik, oso pozik nago gaur egin-
dakoarekin.

Euria egin du irteera aurretik. Horrek
aldaketarik ekarri du zure plantea-
menduan?

Lehenengo aldiz hartu dut parte
lasterketa honetan. Hala, egubakoitz-
tean etorrira, zirkuitua ezagutzen
aukera izan nuen; eta ikusi nuen nola-
ko zorua zuen ibilbideak. Zoru hori,
euriarekin, oso labainkorra eta arris-

kutsua izaten da, eta gaur, horixe ger-
tatu da. Emakumezkoek lasterketa-
ko parte-hartzale batek erorikoa
izan du euriaren erruz.

Eguraldi kaxkarra izan arren, zale-
ek ez dute hutsik egin. Animuak
eskertzen dituzue?

Bai horixe! Topikoa da esatea ani-
muekin askoz hobeto egiten dugula
korrika; baina, egia da. Nik, behintzat,
asko eskertzen ditut zaleen txaloak.

Badakigu aurtengo zure helburua
Osakan jokatuko den Munduko Txa-
pelketa dela.

Bai, halaxe da. Nire helburua,
abuztuaren 25ean, goizeko 7etan


nengoen, eta, berriro, bertara joan-
go naiz. Guztira, 57 egun egingo ditut
midian. Aurretik, beste hamar aste-
ko entrenamendua geratzen zait.

Zure izena oso ezaguna da Euskal
Herriko lasterketetan. Behobida-
Donostia ere irabazi zenuen.

Azaroan, Behobia-Donostia iraba-
zi nuen, eta gero, Elgoibarko krosa
ere bai. Eta gaur, Oñatioko laskerke-
ta. Egia esan, Euskal Herrian ondo mol-
datzen naiz, eta gustura egiten dut
korrika hemen.

Oñatiira bueltatzeko asmoarekin?

Bai, horixe! Datorren urtean, posi-
ble bada, hemen izango naiz.



JOSETXO ARANZABAL

Gorpuzti eguna 2007

SAIO BEREZIA

Eguaztenean, ekainaren 13an,
21:15ean eta 21:47ean.



PILOTA > DEBAGOIENEKO LAGUNARTEKO ESKU PILOTA

Bikote oñatiarrak irabazi du txapelketa

Finalean, Arkaitz Lizarralde eta Julen Romaretazabala 22-18 nagusitu ziren

Final nagusiaren aurretik, hirugarren eta laugarren postuak jokatu zituzten Iturrigorrin

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA

Arkaitz Lizarralde eta Julen Romaretazabala bikote oñatiarrak partiduari buelta eman eta 22-18 nagusitu zen Juanxtu eta Unai Uriarte bikotearen aurka. Partidua ez zen samurra izan; hasierako minutuetan, Juanxtu eta Unai Uriarte aurretik izan ziren markagailuan, lau tantoko aldearekin. Baino, 15. tantoan, oñatiarrek lehia berdintzea lortu zuten; handik aurrera, nagusi izan ziren markagailuan.

Final nagusiaren aurretik, hirugarren eta laugarren postuak jokatu ziren Iturrigorri pilotalekuaren; Iñaki Korta eta Iraultza Iturbe arrasatearrak hirugarren tokian sailkatu ziren, Rober Gomez eta Unai bikote bergararrari irabazi ondoren.

APIRILEAN HASI ZEN TXAPELKETA

Debagoineneko Lagunarteko Esku Pilota Txapelketa apirilean hasi zen. Guztira, ibarreko sei bikote hartu dute parte txapelketan. Bost jardunaldi jokatu ondoren, final erdiak jokatu zituzten joan zen astean: alde batetik, Lizarralde eta Romaretazabala 22-20 nagusitu ziren Kortaren eta Iturberen aurka. Bestetik, Uriarte bikoteak 22-8 irabazi zion Bergarako bikoteari.

Debagoineneko esku pilota txapelketa 1999. urteaz geroztik jokatzen da. Lehenengo urteetan, hiru txapelketa jokatzen ziren, ibarreko beste horrenbeste herrian. Baino, iaztik, txapelketa bakarra jokatzen da, Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuaren, hain zuzen.



IRABAZLEAK Txapelketako bikote irabazlea, garaikurrekin.

A.E.



DIPLOMAK Herriko plazan, diplomak banatu ziren.

MENDIA > TXIKIRRI-TXIKIRRI MENDI IBILALDIA

Eguraldi txarraren erruz, lagun gutxi elkartu ziren

Goizeko 6etan egiten zuen ekaitzaren ondorioz, 46 lagunek bakarrik eman zuten izena ibilaldian

A.E. > ESKORIATZA

Eguraldi txarraren ondorioz, lagun gutxi elkartu ziren atzo, Eskoriatzan egin zuten hildako mendizaleen omenezko ibilaldian. Goizeko 6etan egiten zuen ekaitza zela-eta, 46 lagunek besterik ez zuten eman izena mendi martxan. Horietatik 35ek ekin zioten bideari, eta amaierara 33 besterik ez ziren iritsi.

Eguraldiak, beraz, eragin zuzena izan zuen bi urtean behin antolatzen duten Txikirri-txikirri mendi ibilaldian.

"Aurtengo seigarren edizioa izan da eta, orain arte, 200 lagun inguru elkartu izan gara", azaldu zuen amaieran Iñaki Agirianok. Iaz, esaterako, 244 mendizale elkartu ziren.

PLAZAN, GIRO BIKAINA

Parte-hartzea txikia izan bazen ere, giroa bikaina izan zen. Goiza aurrera joan ahala, eguraldiak hobera egin zuen. Hala, ibilaldian eguraldi ona izan zuten. Amaieran, Herriko plazan jana eta edana egon zen denentzat.

JOSETXO ARANTZABAL



TXANTXIKU Aloña Mendik antolatu zuen zapatuan jokatu zen Txantxiku Saria.

JOSETXO ARANTZABAL

IGERIKETA > 21. TXANTXIKU SARIA

Gipuzkoako talderik onenak lehiatu ziren

Debagoieneko hiru elkartek hartu zuten parte Zubikoan jokatu zen igeriketa sarian: Bergara, Arizmendi eta Oñatiako Aloña Mendi

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI
Gipuzkoako talde onenak elkartu ziren zapatuan Oñatiako Zubiko kiroldegian 21. Txantxiku Saria jokatzeko. Guztira, 14 talde elkartu ziren, 12 Gipuzkoakoak eta beste biak Ondarroa eta Logroñokoak.

385 IGERILARI
Oñatiako txapelketan, Debagoieneko hiru elkartea aritu ziren: Bergarako igeriketa taldea, Arizmendiko igerilariaiak eta etxeko taldea, Aloña Mendiko igeriketa sailekoak.

ditzute", adierazi zuen Xabier Infante Aloña Mendiko igeriketa saileko entrenaztaileak.

TALDEKA, ALOÑA HIRUGARREN
Amaieran, sari banaketa Zubikoako pilotalekuaren egin zen. Han, igerilari guztiak izan zuten aukera sari banaketa ikusi eta sarien bat jasotzeko.

Taldeka, Aloña Mendi hirugarren sailkatu zen, Bidasoa eta Fortunaren atzetik. Etxeko taldeak, beraz, maila onean dagoela erakutsi zuen.

Bestalde, ibarreko igerilariek emaitza onak lortu zituzten: Ainhoa Tatiegik, esaterako, lehenengo postua eskuratu zuen 100 metro krolean. Asier Ibabe oñatiarra ere lehenengo izan zen, 50 metro bular estiloan.

TXIRRINDULARITZA > ALEBIN ETA INFANTIL PROBAK

Bosgarren itzulian, bertan behera geratu zen proba

Arratsaldeko 4:30ean
hasi zen alebin
mailako proba
bakarrik jokatu zen

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Euriagatik, bertan behera geratu zen zapatuan Arrasateko Markulete poligonoan jokatu behar zen infantil mailako txirrindulari proba. Txirrindulariek zortzi itzuli egin behar zioten zirkuituari, baina bosgarrenean, euriagatik, geratu egin

behar izan zuten. Hala, infantil mailako proba irabazole barik geratu zen.

ALEBINAK ONDO
Infantilen lasterketaren aurretik, alebin mailako proba jokatu zen. Horiek lau itzuli eman zioten zirkuituari, eta denetan azkarrenak Ignacio Rojo eta Maite Zuazolarrigorriaga izan ziren.

Guztira, 60 lagun elkartu ziren Markuleten txirrindulari probak jokatzeko. Lasterketa Dorletako Ama txirrindulari eskolak antolatu zuen.



ALEBINAK Markulete poligonoan, 60 txirrindulari elkartu ziren.

PILOTA > HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Arrasatek abantaila du finalaurreko kanporaketan

Ataunen aurka senior mailako partidua irabazita lortu zuten abantaila

KADETEAK ETA SENIORRAK

Kadete eta senior mailako partidua irabazi zituzten arrasatearrek. Bolinaga eta Agirre-gabiriaiak 22-7 menderatu zuten Ataungo bikotea. Bolinagak partidu bikaina jokatu zuen.

Senior mailako bikoteak, Axpe eta Uribarrenek, partidu borobila jokatu ostean, 22-12 irabazi zuten. Garaipen horrek ematen dio abantaila Arrasateko taldeari. Halaber, Aranak eta Zubizarretak 1-22 galdu zuten.

Itzulerako partiduak egubakoitzean jokatuko dituzte.




JOSETXO ARANTZABAL

Juan Jose Olanok 24 plater apurtu zituen

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako, 61 tiratzailek hartu zuten parte Oñatiako Txopekua tiro zelaian jokatutako txapelketan. Berdinaketa apurtzeko saioa egin ondoren, Juan Jose Olanok eskuratu zuen garaipena; bigarren tokian, Luis Mari Kortabarria sailkatu zen. Halaber, Regino Madinabeitia oñatiarrak lehenengo tokian bukatu zuen beteranoen txapelketa.

Debagoieneko WEBGUNEAK

WWW.



AHOLKULARITZAK
ASEGI
www.asegim.com
ESTRADOS
www.consultoriaestrados.com

AKADEMIAK
BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK
BZ SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
MARRUBI
www.marrubi.com

ANTZINAKO ALTZARIAK
ZUMADIA
www.zumadia.com

ARETOAK
360 ARETOA
www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

AROTZTEGIAK
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate

ARRANDEGIAK
ITSAS EDER
www.goiena.net/blogak/itxaseder

ASEGURUAk
BRIZ ASEGUROUAK
www.goiena.net/blogak/briz-asegurua
LAGUN ARO
www.segurosagunaro.com
WINTERTHUR
www.axawinterthur.es

AUTO – KONTZESIONARIOAK
4QUATTRO4
www.4quattro4.com

BIDAIA AGENTZIAK
BARCELO
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA
OSKAR VITORIA
www.goiena.net/blogak/vitoria

EGUZKI OIHALAK
TOLDOS LETE
www.toldoslete.com

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
SETALDE
www.setalde.com

ELKARTEAK
EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL
FEDERAZIOA
www.goiena.net/blogak/ehmff

ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando
ROTUDENAK
www.rotudenak.com

ESTETIKA ZENTROAK
ANGELA
www.angelaestetika.net
GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/gutzideler
LILURA
www.goiena.net/blogak/lilura
MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

FIOSITERAPIA ZENTROA
EKIN
www.goiena.net/blogak/ekin
GARAJEAK / KONPONKETA
AUTOS ARETXA
www.autosaretxa.com
AUTOS RIBELOGA
www.autos-ribeloga.com
GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi
JC RACING
www.goiena.net/blogak/jcracing

GARBIKETAK
HEMEN
www.hemen-garbitak.com

GIMNASIOAK
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport
ZAINDUZ
www.goiena.net/blogak/zainduz

GOZOGINTZA EKOLOGIKOA
ETA INTEGRALA
GALGORRI
www.goiena.net/blogak/galgorri

HARATEGIA
LANDALUZE
www.goiena.net/blogak/galgorri

HAUR PARKEAK
OKIPARK S.L.
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEAK
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIAK
MONDRAGON LINGUA
www.mondragonlingua.com

HOTELAK
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

IKASTETXEAK
ARETXABALETA INSTITUTUA
www.iaretxabaleta.com
ARIZMENDI IKASTOLA
www.arizmendi.ikastola.net
ELKAR-HEZI IKASTETXEA
www.elkarhezi.com
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
www.mondragon.edu

ILE-APAINDEGIAK
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier

INDUSTRIA HORNIDURAK
SUMINISTROS UGARTE
www.suministrosugarte.com

INFORMATIKA
DCA COMPANY
www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOA
HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK
ANBOTO
www.inmoarrasate.com

ARRIETA & SAN MIGUEL
www.arrietasanmiguel.com
KOROSTI
www.inmokorosti.com

UDALATX
www.udalatx.com

JANARIAK
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK
MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK
BASTER ALDE
www.baster-aldejatetxea.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental

DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
MAULANDA MERENDERUE
www.goiena.net/blogak/maulanda

OTZETA
www.goiena.net/blogak/otzeta
TABERNA BERRI
www.goiena.net/blogak/tabernaberri

KALAMUA
KLOROFILA
www.klorofila.com

KIROL DENDAK
LAINO. SKATE & SNOW
www.laino.info/

KONGRESU ETA BILKURAK
GANDIAGA TOPAGUNEAK
www.gandiagat.opagunea.com

LANDETXEAK
ARTEAGA
www.arteagalandetxea.com
ATERBE
www.aterbe.com

UXARTE

LANTEGI ETA TAILERRAK
BATUAK S.A.
www.batuak.com

LINEAS LASA
www.lasa.es
PERFIPAR
www.goiena.net/blogak/perfipar
TALLERES CARPINSA S.L.
www.carpinsa.com

LEIHOAK
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
MAYTE LORADENDA
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK
KORO ZABAleta
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OKINDEGIAK
AIASTUI
www.goiena.net/blogak/aiastui
OGIZUN
www.goiena.net/blogak/ogizun

OPARIAK
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multiopticas

OSTALARITZA
GARAIA OSTALARITZA
HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia
ANTONIO BENITO
<http://www.antoniobenito.net>

PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA
FORMAK
www.formak.net
IPAR PROJECT
www.iparproject.com

PUBLIZITATE AGENTZIAK
ADOX
www.adoxnet.com
AKORT-PUBLICIDAD
www.akort-publicidad.com

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BASTIDA
www.goiena.net/blogak/bastida

TABERNAK
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuonly
ONLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuonly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
HAMAIIKA... TABERNA
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
ZIRIOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesha

TAXIAK
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
GAZTEEN INFORMAZIO
BULEGOA
www.aizue.com
ARRASATEKO EUSKARA
BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA
www.goiena.net/blogak/aebpn

UMEENDAKO ARROPA
HAURTDXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbjeta
GELATZU
www.gelatzu.com

ZERBITZU DIGITALAK
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILEAK
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.



> ELKARTASUNA

Elkartasun Eguna ospatu zuten zapatuan Arrasaten > **24**

> BERTSOAK

San Juan Jaietako bertso saioa egingo dute zapatuan > **24**

> DANTZA

Larrain dantza irakatsiko dute Antzuolan, jaietan egiteko > **27**

> KONTZERTUA

Rueda, Murugarren eta Petti, Elgetako Espaloian > **27**

KILOMETROAK 2007

Freskoa, alaia... argi da

JENDE UGARI

Bergarako frontoia lepo bete zen Kilometroen aldeko herri jaialdian

DOINU ALAIA

'Argi da' abestia country tankerako doinu alaia eta dantzagarria da

EDURNE BURGAÑA > BERGARA Egubakoitzean, Kilometroen aldeko herri jaialdia egin zuten Bergaran. Aurtengo Kilometroetako abestia lehenengo aldiz entzuteko aukera zen, eta bete-bete egin zen frontoia. Aurkezlea Mikel Laskurain aktorea izan zen.

HERRITARRAK PROTAGONISTA Herriko talde askok parte hartu zuten jaialdian. Abesbatza eta musika taldeak, batetik: San Joxepa abesbatza, Aritzeta abesbatza, Aranzadiko neska-mutikoak 1991ko Kilometroetako kanta abesten, Alai taldea, Emon taldea eta musika eskolako haurren abesbatza. Dantza taldeak, bestetik: Osintxuko dantza taldea osatzen duten guraso eta umeak, Ariznoa gimnasia erritmiko taldea eta Abarka dantza taldekoak. Txalapartari eta ber-solariak ere egin ziren.

Halako batean ailegatu zen Argi da entzuteko aukera ere. Bi ordu pasatxo iraun zuen jaialdiaren amaiera izan zen eta merezi izan zuen. Batzuentzat, batez ere umeentzat, luze egin zen jaialdiaren bukaeran alaitasuna jarri zuen. Hogei lagunetik gora parte hartu dute abestian: Belceblues taldeko hiru kideek, haize laukoteak, piano eta biolin-jole banak, Aranzadi ikastolako umeen koruak eta Uxue Rodriguez eta Aitzol Mujikak. Behin eta berriz entzuteko moduko abestia da; jendeak hala eskatuta, bitan abestu zuten egubakoitzean.



Gimnasia > GIPUZKOAKO TXAPELDUNAK

Ariznoa Gimnasia Erritmikoko neskek, adinaren arabera banatuta, hiru koreografia egin zituzten. Iruñean, nagusienak, Gipuzkoako Txapelketa irabazi berri dute.



Kontzertua > EMON TALDEA

Bergarako Emon taldeak bi abesti jo zituen Kilometroetako abestiaren aurkezpen jaialdian: Fermín Muguruzaren *Baxua eta Lurra* eta eurek sortutako abesti bat, *Minutu erdi*.



Aurkezlea > MIKEL LASKURAIN

Aurkezle lanetan, Mikel Laskurain bergararra ibili zen. *Wazeman* zaioan agertzen da Laskurain, eta jaialdirako esketxa prestatu zuten bereziki. Frontoian jarritako pantaletan ikusi zen.



Dantza > ABARKA

Dantza eta kantua izan ziren jaialdiko protagonistikak. Iruñean, Abarka dantza taldeko kideak. Dantza soltea egiten dute normalean, baina egubakoitzean emanaldi berezia egin zuten.



Kontzertua > KILOMETROETAKO ABESTIAREN AURKEPENA

Jaialdiaren amaieran iritsi zen Kilometroak 07ko abestia entzuteko aukera. Belceblues taldeko kide eta Aranzadi ikastolako irakasle Asier Elorzak egin du musika. Letra Jardun bertso euskara elkarteko bertso eskolakoek egin dute. Abesti alaia, dantzagarria egin dute denen artean.

Eneko Azkarate

Bukaeran ginda gozoa

Eta amaiera heldu zen. Gaueko ginda. Ordurako erdi lotan edo izerditan zeuden txikienak, loari ezin eutsi, beroari aurre egin nahian. Gaua distartsua izan zen, goi mailako emanaldiekin.

Aurkezleak —gidari primerakoa Mikel Laskurain, Prakamotx, paperean sartuta, ateraldi bikainekin, ber-gararen artetik bergararen— Kilometroetako abestia aurkeztu zuen. Asier Elortzak eta Jarduneko bertso eskolakoek, Enaitz Alustizak-eta, oso lan ona egin dute: abesti fundamentuzko entzungarri eta dantzagarria.

Eta lehen akordeak entzutearekin bat jendea dantzan hasi zen, erritmoari segika. Perfektu Belcebluesekoak, Ibon, Oihan eta Asier, bizkarrezur sendoa. Haize laukotea kementsu. Maisuki Elortza, Maniega, Markiegi eta Alvarez (honen soloa goi mailakoa); Txurruka brothers ezin hobeto biolinarekin eta pianoarekin; Zeziaga neurrian, trikiti soinu bihurriarekin.

Eta ahotsak? Uxue Rodríguezgoen goxotasun heldua eta Aitzol Mujikaren melodia ederra; Unai saltza guztietaiko perrexila, batetik bestera saltoka, ikus-entzuleak bereganatz. Umeak nekatuta, baina adoretzu. Ikasle finak. OT-koen parean inbidiarik ez. Aupa hamabiko!

Biserako astia ere egin zen eta orduan apoteosia: pilotaleku osoa zutik, ahots batez: Kilometroak Bergaran, argi daukagu, argi da! Jendea gustura eta antolatzaileak irriz, pozik. Herrikit sortutako ikastolak jaialdi herrikoi aparta eskaini zuen. Xumea, baina ederra. Halakoa behar zuen.

KRONIKA > ELKARTASUN EGUNA

Kanpoko zaparradaren babesean gaztetxean

Berlineko Frontkick taldea Euskal Herrira etortzen den bigarren aldia zen: Arrasatera biak

Des-Kontrolekoek bi abesti berri jo zituzten; aurrekoak baino gogorragoak dira

I.B. / E.B. > ARRASATE

Elkartasun Eguna egin zuten zapatuan Arrasaten. Eguraldi txarra zela eta, gaueko kontzertuak Monterrondik gaztetxera aldatu zituzten. Hori dela eta, kanpoan jende asko geratu zen, ezin sartuta. Barruan zeudenek kategoriako lau talde entzun ahal izan zituzten.

Lehenengo taldea Never Surrender izan zen. Talde arrasatearrak punk oi-a egiten du, eta oso sasoian daude, gero eta gehiago jotzen dute. Ostean, The Business Inglaterrako taldea. 70eko hamarkada amaieran sortua, punk oi-aren aitentako batzuk dira. Euskal Herrira etortzen diren hirugarren aldia da, eta jende asko etorri zen, eurak ikustearren. Eskarmentu handiko musikariak dira.

ESAMES FALTSUAK

Hirugarrenak, Frontkick taldekoak. Beste denen kontran, punk-rocka egiten dute, melodia

askorekin. Berlinekoak izan arren, ingelesez abesten dute, eta abeslaria Mallorcakoa da. Oso komunikatiboa da. Emozionatura zeuden taldekideak: Euskal Herrina bi aldiz egon dira, Arrasaten bietan. Jendearen erantzuna ikaragarria izan zen; harritzoka, askok abestiak zekitzitela.

Amaitzeke, Des-Kontrolekoak. Hasi aurretik komunikatu bat irakurri zuten. Aurreko asteburuan Bilbon jo behar zuten, baina ezin izan zuten. Kontua da, Bilbo aldean, hainbat talde "faxis-tatzat" hartzen dituztela, eta esames faltsu batzuk atera ziren, Des-Kontrolekoei "faxistak" deituaz. Ez da gertatzen den lehenengo aldia; beste talde batzuekin ere gertatu da. Hunkituta zeuden taldekideak, aurreko astekoa eta gero, Arrasaten bildutakoen babesea ikusita. *Duintasunez eutsiko* kantuak jo zituzten, batez ere. Baita bi abesti berri ere, jendeak ezagutzen ez zituenak, aurrekoak baino gogorragoak.



THE BUSINESS Punk-oi musikaren aitetako batzuk dira; eskarmentu handiko musikariak.

JOSETXO ARANZABAL

Aitor Urizar > Portaloirako Topaguneko kidea

"Aurrera atera genuen eguna, eta pozik gaude"

E.B. > ARRASATE

Elkartasun Eguna ospatu zuten zapatuan Arrasaten. Balorazioa egin du Aitor Urizar, Portaloirako Topaguneko kideak.

Nola joan zen eguna?

Egin zuen eguraldia iksita, aurrera atera genuen eguna, eta pozik. Baina arazoak ere eduki genituen.

Ze arazo mota?

Mutil batek herri kiroletan mina hartu zuen. Txin-gakerotan zebilela lurre-

ra jausi eta peronea apurtu zuen; ebakuntza egin diote.

Herri bazkaria egin zenuen ostean Kondekuau.

Iaz, 200 leku jarri eta soberan geratu ziren. Aurretan, 150 jarri eta jendea ezin sarrerak lortu ibili da. Jendeak prestatzen eta zerbitzatzen du janaria.

Arratsaldean, kontzertuak tabernatan.

19 tabernatan eginditugu. Udalak dirulaguntzarik



GOIENKARIA

Manifestaziorako, euriak tartetxo bat egin zuen.

Bai, Euskal presoak Euskal Herrira eskubide guztien jabelelopean. Iaz baino jende gutxitxoago etorri zen, eguraldiagatik, baina hala ere, asko.

Zer moduko giroa egon zen gaztetxean?

Kontzertuak Monterronen izan behar ziren, baina, euriagatik, gaztetxean egin ziren. Jende gutxiago sartzen da bertan, eta asko kanpoan gelditu zen.

SAN JUAN JAIAK > BERTSO JAIALDIA

San Juan jaietako bertso jaialdia zapatuan izango da

Bost bertsolari ibiliko dira oholtza gainean: Xabier Silveira, Amets Arzallus, Jokin Labayen, Angel Mari Peñagarikano eta Nerea Elustondo

E.B. > ARRASATE

San Juan bezpera ekainaren 23an ospatzen bada ere, Arrasaten ekitaldiak oraingo zapatuan hasiko dituzte. Arrasateko AED euskara elkateak antolatuta, bertso saioa egindo dute Monterron parkean, 22:30ean. Eguraldi txarra eginez gero, Amaia Antzokian egindo dute.

Bost bertsolari ibiliko dira oholtza gainean: Xabier Silveira,

Amets Arzallus, Nerea Elustondo, Angel Mari Peñagarikano eta Jokin Labaien arrasatearra.

Gaijartzale lanetan, Arrasateko bertso eskolako partaide Enaitz Alustiza ibiliko da.

ARRAKASTADUN SAIOA

Urtero, nahiko saio arrakastatsuia izaten da, lekua bera ere, horretarako ezin hobea delako. San Juan jaien aurreko astebu-

BERTSO JAIALDIA

ARRASATE EKAINAK 16 LARUNBATA :: 22:30 MONTERRON PARKEAN (eguraldi txarrarekin Amaia antzokian)
SARRERA DOAN

XABIER SILVEIRA
AMETS ARZALLUS
NEREA ELUSTONDO
JOKIN LABAYEN
ANGEL MARI PEÑAGARIKANO

GAI JARTZAILEA: ENAITZ ALUSTIZA

KARTELA Zapatuko bertso saioko kartela.

rua izanda, jaiei ongietorrria emateko ekitaldi egokia da zapatukoa.

Baina ez da izango egun horretako ekimen bakarra. 16:30ean

Mondragon Hotelean 11. Mus Txapelketa jokatuko dute.

SUDC elkartekoek antolatuta, urtero bezala, haurren tanborra-

da ere egingo dute. 19:00etan hasiko da, eta Arrasateko Musikaleko Musika Bandarekin egingo dute.

GOIENKARIA

EKAINAK 5 INGURUMENAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Klima aldaketaren aurrean, kontsumo iraunkorra

Maitatu berriro Natura



ingurumena.net

Gure esku dago

EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO




Karaoke Ikuskizuna

Urritik aurrera Debagoienean!

Debagoienean bizi bazara, 1995 eta 1999. urteen artean jaio bazinen eta euskal kantuak abestu eta dantatzeko prest bazaude, eman izena zure eskolan, Goienako egoitzetan edo ondorengo blogean: www.goiena.net/blogak/kantari

- Taldea gehienez lau lagunek osatuko dute.
- Izenematea eskoletan: ekainaren 20a baino lehen.
- Izenematea Goienako egoitzetan edo blogean: ekainaren 27a baino lehen.
- Ikuskizunak Debagoineko aretoetan izango dira.
- Parte-hartzialek uda aurretik aukeratuko dira, eta uda ostean hasiko dira entseguak.
- Emanaldi guztiak **GOITBn emango dira**, Debagoineko Telebistan.

BABESLEA



gaztetxoen
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA





BERGARA Bergarako (argazkian) eta Elgetako liburutegiek parte hartzen dute kampainan.

GOIENKARIA

IRAKURZALETASUNA > EUSKARAZ IRAKURTZEKO KAMPAINA

'Irakurri, gozatu eta oparitu', martxa onean

Debagoienean, Bergaran eta Elgetan martxan dago kampaina, eta ekainaren 23an amaituko da

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Topagunea euskara elkarteen fede-razioak, hainbat euskara elkartea, liburutegi eta liburu dendarekin antolatutako *Irakurri, gozatu eta oparitu* kampainak hilabete darama. Ibarrean, Bergara eta Elgetan ezarri dute, eta Topaguneak "martxa onean" doala dio.

OPARITZEKO LIBURUAK

Egitasmoak liburuen salmentan edukiko duen eragina baloratzeko "goiz samar" delakoan daude antolatzaleak, baina, liburutegi publikoetan egindako maileguak ikusita, irakurketa sustatzeko "proposamen eraginkorra" dela uste dute.

Herri bakoitzeko liburutegian eta www.topagunea.org/irakurri webgunean 100 liburu daude ikusgai. Horietako bat hartu, mailegu zerbitzuarekin etxera eroan, irakurri eta, bueltatzerakoan, liburu hori erosia eta, beste norbaiti oparitu nahi izanez gero, fitxa bat bete behar da. Horrela, deskontu txartela eskuratua eta %25eko deskontua lortuko du erabilzaileak; euskara elkarteko kidea izanda, %50ekoa.

MUSIKA TALDEAK

Gose TVEko La2en agertu zen egunean

E.B. > ARRASATE

Arrasateko Gose taldea, ibarrean ez ezik, Espainiako Estatuan ere ezagun egiten ari da. Carlinhos Brown kantariaren teloneroak izan dira, eta hainbat kontzertu egin dituzte Estatuan. Hori bakarrrik ez, pasa den egunean, TVEko La2 kateko *Los concierdos de Radio 3* saioan ere agertu ziren taldekiek.

ESTILO BERRI BAT

Elektro-jazza, tangoa, seaska kantua, technoa, punka, hard-corea, arin-arina, eta beste hainbat estilo nahasten dituzte arrasatearrek euren abestietan. Hori bai, guztia trikitiaren mundutik; euskal trikitiaren kultura irauli dute.

LEHIAKETAK

Bidaietatik bueltan, egin zure gomendioa

E.B. > BERGARA

Aurtengoan ere, Arrasateko eta Bergarako Gazte Bulegoek Gomendatzen dizut... saria antolatu dute. Bidaia baten ezagututako lekuak gomendatzeko aukera ematen du.

OINARRIAK

Bidaia bat egin eta informazio interesgarri askorekin bueltatzen gara: ezagutu berri dugun lekua, aterpea, mendia, hondartzia, herria, ibilbidea eta beste hainbat datu.

Gomendioak hurrengo bidaiaiei helarazteko, blogean sartzea besterik ez dago: www.aizue.com. Gero sariak banatuko dituzte bi kategoria banatuta: 12-17 urte bitartekoak, eta 18-34 artekoen artean.



Rafa Rueda, Txuma Murugarren eta Petti Espaloian aritu ziren

IKASTAROA > DANTZA

Larrain dantza ikastaroa antolatu dute Oinarinekoek

Bihar hasita, martitzenero emango dituzte eskolak

Herri Ikastetxeko barruko patioan izango dira dantzak

E.B. > ANTZUOLA

Antzuolako jaiak uztailaren 12an hasiko dituzte, baina prestakizunekin hasi dira dagoeneko. Hankak eta besoak Larrain dantzaren doinura mugitzen ikasi nahi dutenentzako ikastaroa antolatu dute herriko Oinarin dantza taldekoek. Bihar hastekoak dira ikastaroarekin, eta martitzenero izango da hitzordua.



DANTZA Herritarra dantzan Antzuolako jaietan.

GOIENKARIA

Egubakoitza gauean, hiru euskal bakarlarri batera aritu ziren Elgetako Espaloia Kafe Antzokian: Rafa Rueda, Txuma Murugarren eta Petti. Lagun giroko emanaldia izan zen, *petit commite-an* egon ziren bertara joandakoak. Mahaiak elkarretik oso gertu jarrita, kandela banarekin, eszenatokira begira. Iaz Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin grabatu zuten *Hauxe* diskoko zazpi abestiak jo zituzten, eta gero bakitzak bina abesti. Amaitzeko hiru bis ere egin zituzten. Kontzertzto intimoa benetan.

JOSETXO ARANZABAL

gazte zerbitzuak

BEKAK

Gaztekutxa. Atzerrian ikasteko Gaztekutxa bekak 2007. Nazioarteko ikasketa programetan parte hartzen duten pertsonentzako diru-laguntzak. (Gaztekutxa txartela beharrezkoa da). Epea: Ekainaren 30a.

Nekazarri gazteak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Nekazaritzako ikasketak amaitu berri dituzten ikasleek lehen lana bila dezaten ahalbidetza, eta nekazaritza eta abeltzaintzako merkatuan merkataritza-irteerak dituzten lanbide-jarduerak sustatu edo garaizteko. Epea: ekainaren 30a.

EKINTZAK

Boluntariotza. Gipuzkoako Foru Aldundia. Boluntario lanari buruzko III. Topaketa. Erakundean boluntario-lanaren kudeaketan ardura dutenen-dako eta boluntarioak dituzten erakundeetako arduradumentzat. Ekainaren 16an, Tolosako Hirukide Ikastetxeen.

Dinamik. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Amasté. Batxilergoa bukatu berri duten ikasleei eta moda, arte ederrak, arkitektura, filosofia, diseinua, zinea, kazetaritza, publizitatea, pedagogia... ikasketak egin nahi dituztenei zuzenduta. Egunak: 2007ko uztailaren 16tik 27ra. Epea: ekainaren 15a.

IKASTROAK

Gizarte eta kultur sustatzaile ikastaroa. Fondo Formación Euskadi. Langabe edota ikasleentzako Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 20:00ak arte. Epea: ekainaren 16a.

LEHIAKETAK

Bideosorkuntza. Fundición (Bilbao). LEKUZ LEKU bideosorkuntza lehiaketa. Epea: Ekainaren 28a.

Fotoarte 2007. Gasteizeko Udala. Argazki lehiaketa. Jarduera artistikoa modu erakargarriaren ikusten lagunduko duen argazkia. Epea: Ekainaren 30a.

LANA

Arkitektoa. Zarauzko Udala. Go-mailako arkitekto bat. Epea: ekainaren 19a.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebullegoa@arrasate-mondragon.net

BERGRAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

ÖÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinatik.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Baseria salgai Iur-sailekin. Deitu 943 76 65 03 telefonora.

Antzuola. Etxebizitza salgai, adosatua. Estreinatzeko. 60779037.

Aretxabaleta. Erdigunean, 72 m²-ko teiatutapeko eta 16 m²-ko garajea. Prezio ona. Deitu 659 64 67 38 zenbakira.

Arrasate. Zigarrola auzoan, 120 m², 5 logela, 2 komun, sukaldea, despinta, egongela, ganbara, txoko eta 150 m²-ko terraza. Eguzkitua. 647 41 93 66.

Arrasate. Etxebizitza salgai Uri-beaurekin. Lau logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Garajea aukeran. 625 28 72 06.

Arrasate. Grupo San Juanen. 4. solairuaren dago. 60 m². Igogailua, ganbara eta sotoa. Sotoko moduan. 606 25 92 80.

Arrasate. San Andren, Txindoki dorrean, 109 m²-ko etxebizitza salgai. Eguzkitua eta bistaederrek. Lau logela, sukaldea, egongela handia, bi bainugela eta hiru terraza. Berriztua. Beronkutz zaentrala. 385.000 euro. Deitu 943 79 19 94 zenbakira.

Arrasate. San Josepen, 58 m², bi logela, egongela, bainugela, sukaldea, trastelekua, berogailua, igogailua, guztiz berriuta. Deitu 19:00etatikurrera, mese-dez. 667 53 70 00.

Bergara. Etxe salgai herri erdian. Lau logela, 3 bainugela, alzariekin. 659 44 76 75.

Bergara. Ibarra kalean, 50 metro koadro. Berogailuarekin. Jantzia. Eraberritu berria. Sukaldamerikarra. Bi logela. Eguzkitua. 635 71 04 55.

Bergara. Zubiaurren etxebizitza salgai. Guztiz berriuta. Berogailuarekin eta ganbarekin. 619 41 39 72.

Donostia. 72 m²-ko etxe salgai. Igogailuarekin. Bizitzeria sartze-ko moduan. Bista ederrak. 396.070 euro. Deitu 658 73 08 56 telefonora.

Guardia (Laguardia). 80 m². Sukaldea, hiru gela, egongela-jangela, bainugela eta 30 m²-ko ganbara. Jantzia. Hirigunean. Eguzkitua. Prezioa adosteko aukera. Deitu 943 77 21 24edo 696 02 42 10 zenbakiera.

Oñati. Etxea salgai Ugarkalde auzoan. Berria. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta terraza. Eguzkitua. Prezio intresgarria. Lehenbaileen salzoko premia. 670 27 45 82.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Duplexa ematen da errentan. 105 m². Erdialdean, la berria. Jantzia. Bilogela, sukaldea, egongela eta bi bainugela. Ikerlak ez. 629 46 93 91.

Arrasate. Etxebizitza errentan ematen da ikasleentzat; emakumezkoanhiago. San Andresen. Erabat berriuta, estreinatzeko: hiru logela, sukaldea horriuta (mikroun-labea, bitrozeramika...), igogailua. Unibertsitatik hiru minutura eta erdiguneetik bost minutura. 600 60 56 71.

Arrasate. Hiru logelako etxe

133. zozketa

ASTELEHENeko GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Saridunak

Ekainaren 15ean ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN izango den SWEET OBLIVION ikusteko 6 sarrera.
Ana Agirre Sirena (Bergara)
J. Ramon Idigoras (Oñati)
Iñaki Gillegi Larrañaga (Elgeta)



134 zozketako saria

Markak Gernika 1937
Bernardo Atxagaren azken liburuaren bost ale.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENeko GOIENKARIAN BIETAN,

ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).

GOIENKARI ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

VW California. 1996. urtekoa. 636 28 00 07.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Setter arrazako txakurrak sal-gai. 943 78 70 64.

703. EMAN

Etako lau katakume oparitzen dira. Oso politak. 635 74 34 55.

Hiru txakurume. Ama euskal ardi-txakurra eta aita ardi-txakur belgikarra. Hilabete daukate eta pentsua jaten daude. Eskoriatza daude. Telefonoa: 619 92 91 18.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Baxera eta mahai-zapiak salgai, elkartea edo jatetxe baterako egokiak. 659 44 76 75.

Depilazio makina eta suko-ohea salgai. Prezio interesgarria. Deitu 659 44 76 75 zenbakira.

Karabana salgai. Bost pertsonen-dako. Ondo dago. Deitu 636 60 07 25 zenbakira.

Karabana salgai. Knaus markako. 2005. urteko. Hiru gune ditu eta estrategiak. Deitu 39 69 47 zenbakira.

Kanpin denda-karroa. salgai, Alpen-Kreutzer markakoa. Sukaldea eta estalki hermetiko dazuka. Egoera eta prezio onean. 619 71 60 65.

Karro-denda salgai. Inesca-Mar-bella markakoa. 3 urte ditu. Sukaldea eta izozkailua. 1.500 euro. Telefonoa: 659 04 12 59.

Mendi bizikleta salgai. BH Supra 200 modeloa. Gorria da. 618 56 12 59.

Realeko jantzi ofiziala salgai. Erabil gabea. 12 neurriko. 30 euro. 943 77 13 11.

Relax sofa. Indibiduala. Oso ondo dago. Telia koloreko. 450 euro. 688 61 24 20.

Sony telebista. Panoramikoa. 100 Hz. 32". Altzari eta guzti. 607 63 48 88.

806. GALDU

Bergara. Txaketa beltza galdu nuen maiatzaren 27an. San Pedro elizatik. Mizerrialderia bitartean. Deitu 628 88 54 17 zenbakira.

Giltza galdu dut, Renault Espa- ce autoarena. Ekinaren 2an galdu nuen, seguruen Aretxabaletan ospatu zen Mundumira jaiko umeen gunean. Topatu baduzu, eskertuko nizuke deitu bazenu. Deitu 667 89 28 38 zenbakira.

807. AURKITU

Belarritako aurkitu nuen Aretxabaletatik Urkularia doan bidegorri hasieran. Urrezko da eta perla txikia bat dauka. Arantxa. 943 79 66 46.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxea hartu nahi derten. Ezinbesteko da igogailua edukizuna. 606 25 17 74.

Debagoiena. Unibertsitatera datozen atzerriko ikasle batzuentzat etxebizitza alokairuan hartzten da. irailaren erditik urtarrilaren bukaera arte. Seriotsuna ziurtatuta. 656 77 66 32.

Gasteiz. Lau ikasle gara eta etxebizitza harta gura genuke errantzen, urte osorako. Ane. 685 76 42 81.

Oñati. Bikote batek apartamentua hartzeko luke errantzen urtik aurrera. 659 25 72 84 edo 943 78 20 65.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Logela errantzen ematen dut, unibertsitatik gertu. 665 13 31 10.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Bulegoa ematen dut errantzen. 450-500 euro. 17 metro koadro. Komuna dauka. Beste gela bat erabiltseko aukera. Arrasate erdaldean. 679 59 04 38 edo 659 59 71 21.

Arrasate. Kontzezino kalean garaje plaza emango nuke errantzen. 655 71 81 84.

4/ LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume bat pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eskarmentua. 943 08 12 80.

Arrasate. Emakume euskalduna edo zein gertu. 659 82 75 18.

Bergara. Mutil bat gertu zerbitzari lanetan. 653 85 48 59.

Bergara. Pertsona nagusiak zaintzeko gertu, baita asteburuan ere. Etxearen bertan bizitzeko prest. 618 44 59 77.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitasun lanak egiteko, umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldeko laguntzaile

Harpidedun ez bazara...

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

35 euro

2007 bukaera arte.

Goienkaria
astelehenen, aste bukaera osoa

Zorionak irabazleo!

Gaur, ekainaren 11, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan dator.

astea GOITBn

Astelehena, 11




> Oñatiko Herri lasterketa ikusteko aukera
21:15

A r a n t z a z u Ezkibelek aurkeztuta, Oñatiko Herri Lasterketaren nondik norakoak gogoratuko dira gaur gaeuan *Harmailatik* saioan.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Teknopolis.
14:15 Ikusten.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ilunpean.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Bizitegia.
16:15 Erreportajea.
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ur eta lur.
18:45 Albisteak.
19:15 Erreportajea.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Harmaillatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 5 x 5.
22:15 Hasiberriak.
22:45 Berriak.
23:15 Didjeridu.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Ikuusimira.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 12



> 'Berbaire' saioan mahaingurua izango da
21:15

Julen Iriondo-ren eskutik, Elena Laka, Ander Elortondo, Juan Kruz Mendizabal eta Maite Aristegi izango dira mahai-inguruan.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Boboboak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Harmaillatik.
14:15 5 x 5.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Eltze beroa.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Telesaia.
16:15 Ikuusimira.
16:45 Albisteak.
17:15 Boboboak.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Bizitegia.
18:45 Albisteak.
19:15 Harmaillatik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak: Boboboak.
20:45 Berriak.
21:15 Berbaire.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea.
22:15 Harmaillatik.
22:45 Berriak.
23:15 Hitz bitan.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Ur eta lur.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 13



> Korpus Kristi jaiari buruzko saio berezia
21:47

Korpus Kristiko prozesioa, meza nagusia eta, oro har, domekan Oñatin ospatu zen jaieguna izango da ikusgai GOITBn gaur gaeuan.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 5 x 5.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ur eta lur.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Telesaia.
16:15 Ikuusimira.
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Harmaillatik.
18:15 Eltze beroa.
18:45 Albisteak.
19:15 Teknopolis.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Berbaire.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Gorputzi eguna 07.
22:15 Telesaia.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Ur eta lur.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 14



> 'Musikantoi' saioan, askotariko eskaintza
21:47

G a u r k o a n , Sexy Sexer nafarrak, The Uski's bizkaitarrak eta Hertzainak taldeak Anoetan eman zuen kontzertuko pasarte bat ikusgai.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Boboboak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Gorputzi eguna 07.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Eltze beroa.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Telesaia.
16:15 Ikuusimira.
16:45 Albisteak.
17:15 Boboboak.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Eltze beroa.
18:15 Teknopolis.
18:45 Albisteak.
19:15 Bizitegia.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak: Boboboak.
20:45 Berriak.
21:15 Berbaire.
21:45 Gorputzi eguna 07.
21:47 Gorputzi eguna 07.
22:15 Telesaia.
22:45 Berriak.
23:15 5 x 5.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Ilunpean.
00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 15



> Inaxio Kortabarria, 'Ilunpean' saioan
22:15

Gaur, *Ilunpean* saioan izango den Realeko futbolari ohi horrek, Iribarrekin batera, Atoxako partidu batean ikurrina eraman zuen.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bividunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Eltze beroa.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Telesaia.
16:15 Ikuusimira.
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Eltze beroa.
18:15 Gorputzi eguna 07.
18:45 Albisteak.
19:15 Bizitegia.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bividunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 5 x 5.
22:15 Ilunpean.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Musikantoi.
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> Araba Euskaraz, arrasatear batekin berbagai
11:20

Argantzunen ospatuko dute Araba Euskaraz jaia domekan, eta han irakasle den arrasatear batekin, Diego Gartzarekin, egingo dute berba irratiok. Horrez gain, Mondraren gazta eta ardoaren jaiak emandakoak errepasatuko dituzte irratiaren.

Astelehenezik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarritzak
Kirolen geltokia
Zozketak
Zorion agurrrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)

12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (erre.
17:00, 19:00, 21:00, 23:00
Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errepiakena)


Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.
Aste osoan barrena egindako elkarritzeten eta gainontzeko edukien laburpena

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua

gertutik



Joan Mari Torrealda
Soziologoa

"Errealitatea deskribatzea maite izan dut beti"

AMAIA ZALDUA > BERGARA
Joan Mari Torrealda 1942an jaio zen Foruan, eta Filosofia, Teologia eta Gizarte Zientziak ikasi zituen. *Egunkaria*-ren sorreran parte hartu zuen, 1977tik *Jakin* aldzikario zuzendaria da, eta irakasle ere izana da. Gainera, Euskaltzain urgazlea da. Orain, *Egunkaria*-ko epiketarekin dabil.

Jakin-ek zer eman dizu?

Leku bat euskal kulturan; euskal kultura eta mundua euskaraz pensatzeko modu bat.

Eta zuk *Jakin*-i zer eman diozu?

Bizia eta iraupena. Eta modernitatea, oker ez banago. 2006an, 50 urte egin ditu *Jakin*-ek, eta horietatik 34 zuzendari lanetan jardun dut, ahalgeln betean.

Zer zara gehiago, kazetaria, zuzendaria ala soziologoa? Zergatik?

Hiru horietatik badut, baina baita gehiago ere. Hiruotatik bat aukeratzakotan, soziologo. Fikzioa barik, errealitya deskribatzea maite izan dut beti.

Prentsa idatzian egin duzu lan, gehienbat. Pentsatu duzu telebistan edo irratiaren aritzea? Zergatik?

Iatzian trebatu naiz, eta idatzian gelditu. Hori da nire mundua. *Jakin* badakit sona handiagoakoak direla telebista zein irrati, baina idatziaz gehiago fio naiz. *Scripta manent*.

Egunkaria-ren sorreran ere parte hartu zenuen. Lortu ditu bere helburuak?

Helburu asko bete ditu *Egunkaria* zenak. Euskarazko egunkaririk gabe, zeinek irudikatzen du euskal kultura gaur? Bada, egin kontu, 1990 arte horrela bizi ginela. *Egunkaria*-ko lantzardeak egin zuen lana txapeka kentzekoa da.

Euskararen munduaz serio hitz egiten dugu beti. Pozteko arrazoirik izango da, ezta?

Bai, segun eta. Badakizu, ontzi erdi-betea eta ontzi erdi-hutsarena. Biak dira egia. Sekulako aurrerakada egin dugu, egia da. Baina globalizazioaren baitan, lehen baino ahulago gaude. Erremediorik? Errezeta pare bat: elkarlana, eta asmatu!

asteo hitzorduak

Zinema



> Eguaztenean zinekluba izango da Elgetako Espaloia Kafe Antzokian

Pintar o hacer el amor izeneko filma 21:30ean hasiko da. Komedia frantses hori Larrieu anaiek zuzendu zuten 2005ean. Urte asko batera daramatzan eta maiteminduta jarraitzen duen bikote bat buruzko filma da.

Kontzertua



> Zapata, bi kontzertu izango dira Bergarako Jam aretoan

Hilaren 15ean La habitación roja (argazkian) eta Standard izeneko musika taldeak izango dira Jam-en. Lehenengo taldea Zaragozako da eta rocka, popa eta musika latindarra egiten du. Bigarrena, aldiz, Bilboko da eta rocka egiten du.

Bertso saioa



> Oraingo domekan, bertso saioa izango da Monterronen

Nerea Ariztondo, Xabier Silveira, Amets Arzallus, Anjel Mari Peñagarikano eta Jokin Labaien izango dira, AEDrren eskuak. Gai jartzailea Enaitz Alustiza (argazkian) izango da. Eguraldi txarra eginet gero, Amaia Antzokian izango da.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Gorpuztiekin
utzitako
gorputza

Gorpuzti jaiak gorpuzti ederra utziko zion bat baino gehiagori. Domekan, ordu txikietan ohera sartu eta ametsetan hasi orduko, dantzarien kriskitin soinuak iratzarriko zuenik ere izango da. Behin iratzarrita, dutxan bat eta kalera, prozesioa ikustera.

Onatiko kaleak ez dira Milan eta Parisko ibiltokiak, baina lurrean botatzen duten ihia aprobetxatuz, udako soinekoak estreinatzeko eguna izaten da Gorpuzti domeka. Denetarik ikusi daiteke... benetan diot!

**"Prozesioan,
kofradiako kideek
'pinganilloa'
erabiltzen dute
komunikatzeko"**

Mendeetako ohitura da Onatiko prozesioa; hala ere, teknologiak hartu du bere lekua prozesioan. **Kofradiakoek** hain ezagun bilakatu diren *pinganilloak* erabiltzen dituzte elkarrekin komunikatzeko. Laster, santuak eramateko, andazainak beharrean, robotak aterako dituzte. Batek baino gehiagok eskertuko du!

Zapatuan, futbol taldeek agur afaria egin zitzuten. Oñatin, **Aloña Mendikoak** ibili ziren, Errioxan eguna pasa eta gero. Iluntzean, **Antzuolako** hainbat jokalari ere izan ziren Oñatin. Horiek ere Errioxan izan ziren, 1. mailarako igoera ospatzen. Eta Arrasaten, **UDAko** jokalariet Elkartasun Eguna aprobetxatu zuten parranda egiteko. Realekoak ere aterako ote ziren?

hildakoak

• Jose Luis Rodriguez Garcia.
Bergaran, ekainaren 8an. 75 urte.

• Iñaxio Guridi Arregi.
Oñatin, ekainaren 9an. 71 urte.


• Bienvenida Gonzalez Jimenez.
Bergaran, ekainaren 9an. 88 urte.

• Pilar Zabala Frias.
Bergaran, ekainaren 9an. 93 urte.

asteburuko albuma



Herri Eskolako jaia. Urte amaierako jaia egin zuten egunean, Guraso Elkartek antolatuta, Arrasateko Herri Eskolako umeek. Ikasleek, taldeka, euren ikuskizunak eskaini zituzten: antzezlanak, kantak, dantzak... Ondoren, puzgarriak eta Eriz magoaren ikuskizuna izan ziren gaztetxoen gozagarri, eta gurasoek pintxoak eta edariak erosteko aukera izan zuten, egunerako propio ipinitako barran. Eguraldia lagun, jende ugari hurbildu zen jaira, eta antolatzaleak pozik daude jasotako erantzunarekin.



Korpus jaiak Ondarren. Ekaitz giroak eta jai giroak bat egin dute Antzuolako Ondarre auzoan aste bukaeran. Umeak izan ziren protagonista handienak zapatuan: jinkana, igerileku eta pailazoekin gozatzeko aukera izan zuten, baina euriarenengatik, krosa bertan behera utzi behar izan zuten. Iluntzean, trikitilariek, kalejiran, afaria iragarri zuten, eta oilasko goxoa jateko 50 heldu eta 20 ume elkartu ziren. Afalosteko dantzaldian, Jexusek musikajariaren, ezziren asko dantzara animatu. Domekan, prozesioak eta dantza saioak borobildu zitzuten jaiak.



Diploma banaketa. Bergarako Karitasek, Madrilgo Osasuna Gizatiar Egiteko Zentroarekin elkarlanean, bi ikastaro antolatu ditu eta, zapatuan, diplomak banatu zizkieten ikasleei. Adinekoak zaintzeko oiharrizko ikastaroan, 23 emakumek hartu dute parte, denak etorkinak; eta, espezializazio ikastaroan, 17 emakume etorkinek eta gizartea bantzertzeko arriskuan zegoen gizonezko batek. Diploma banaketaren aurretik, heriotza gizatiar egiteaz jardun zuen Jose Carlos Bermelok. Gero, San Joxepeko abesbatzaren emanaldia eta luntxa izan ziren.



Erreka garbiketa. Domekan, Arrasateko eskoletako 15 neska-mutikok, ingurumenarekin zuten hitzorduari hutsik egin gabe, erreka garbitu zuten. Goiz osoan, giro politean jardun zuten zaborra biltzen eta Udal Brigadako Land Rover bat betetzeko adina zakar atera zuten errekatik. Aurrez ere egin izan dira horrelako garbiketak, eta Ingurumen batzordeak esan digu, pixkanaka, zabor gutxiago ateratzen dutela. Hala ere, oraindik agertzen dira plastikoak eta bestelakoak uretan, eta jendeari gogorarazi nahi diote zaborra behar den tokira botatzeko.

Eskoriatzarrak Arratian. Egun pasa joan ziren zapatuan Arratiara, Bizkaia, 1957an jaiotako kinto eskoriatzarrak, 36 lagun guztira. Arratiako bailara ezagutzeko bisita egin zuten lehenengo. Ondoren, Gorbea eta Urkiolako natur parkeen magalean, Dimako Axpe Goikoa erretegian, egin zuten bazkaria. Eguna oso giro onean pasa zutela esan ziguten, eta jaia gauera arte luzatu zuenik ere izan zen; izan ere, 50 urte bizitzan behin baino ez dira betetzen, eta ospatzeko moduko urtemuga da, gainera, mende erdia betetzen denekoa.

URTEURRENA

Jose Chasco Barrena



Lehen urteurreneko meza
domekan, ekainaren 17an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.

Anai-arrebak: Mª Carmen eta Francisco Murillo;
ilobak: Natalia, Alberto, Jabier, Noelia, Patricia eta Erika Yue.
Hileta-elizkizunetara joango zaretenoi
aldez aurrelik eskerrik asko.

Bergaran, 2007ko ekainaren 11n.

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena
edo bidali honako helbidera:
astelehena@goiena.com

jaiotakoak



OÑATI
Iraia Ugarte
Ekainaren 4an urtebetetzea. Zorionak lagunen partetik. Gozua euen tartia?




ARRASATE
Iñaki Etxebeste Larrañaga
2007/06/05
Zorionak zuri, zorionak beti, osaba Iñaki!



ARRASATE
Josiña Etxebeste Inciarte
2007/06/05
Zorionak aittona etxekoan partetik!



ELGETA
Maider Arkarazo
Ekainaren 5ean 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat.



ARRASATE
Alaitz Bergaretxe
Ekainaren 6an, urtebetete. Zorionak! Etxeko guztiak partetik.




OÑATI
Braulio Zubia
Ekainaren 7an. Trinidadak ospatu genituen Araotzen aurreko astebukaren, eta auzoko ba



BERGARA
Aimar Agirrebarrena
Ekainaren 9an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familia guztiaren partetik.



OÑATI
Aintzine Korkostegi
Ekainaren 10ean Zorionak! ondo ondo pasau eguna eta urte askotarako kuadrillakuan partetik.



ARRASATE
Irati Santa Cristina Jausoro
Ekainaren 11an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik!




ARRASATE
Eneko Elizaran
Ekainaren 11n, 5 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.



BERGARA
Madi Goenaga
Ekainaren 11n 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.



ESKORIATZA
Mikel Elorza Cobos
Ekainaren 12an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasau. Zure familia eta bereziki An



BERGARA
Uxue Zubizarreta Agirrezabal
Ekainaren 12an, Zorionak 4. urtebetetzean, etzekuen partetik, batez be bere anaia Unaire



OÑATI
Amaia Goitia
Ekainaren 13an urtebetetzea. Zorionak 'Goitti'. Zer gertatu bihar dozu afaiteko? Lagunen partetik..



ARRASATE
Haizea Apellaniz
Ekainaren 14an 5 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.



ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENeko GOENKARIAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

Zorionak! **Zorionak!** **Zorionak!**

jaiotakoak



Mikel Iraldo Arias
Arrasate > 2,790 kilo. Ekainaren 4ean. Gurasoak: July (Kolonbia) eta Luis Miguel (Kolonbia). Argazkian, Mikel gurasoekin.



Eritz Garitano Oiartzabal
Antzuola > 3,600 kilo. Ekainaren 6an. Gurasoak: Isabel (Azpeitia) eta Ibon (Antzuola). Argazkian, Eritz jaioberria.



Garazi Irazabal Plazaola
Oñati > 3,360 kilo. Ekainaren 8an. Gurasoak: Nerea (Oñati) eta Iñigo (Oñati). Argazkian, Garazi jaioberria, kumatxoan lo.

BABESLEA



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Iban Zaldua > Idazlea

"Idazle arraroaren topikoa betetzen dut"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE
Liburu barik etorri da Iban Zaldua idazlea Arrasateko hitzordura. Bainan literaturaz, eta, noski, ipuinez, hitz egin dugu berarekin. Txapela zergatik janzten duen ere kontatu digu.

Gasteizen bizi zara aspaldian. Zenbatean behin joaten zara Donostiara, jaioterrira?

Nahiko alperra naiz batetik bestera mugitzeko, baina etxekoak bisitatzen joaten naiz, bai. Aspaldiko lagun minak ere han ditut eta, noizean behin, eurekin elkartzea ere gustatzen zait.

Behin entzun nion beste idazle bati norbera batxilergoa egiten duen herriko dela, eta uste dut arrazoia duela. Nik Donostian egin nuen.

Lehenengo ikasle, eta orain irakasle. Ondo ezagutuko duzu Historia fakultatea, ezta?

Asko aldatu da, baina bai, ondo ezagutzen dut.

Nola mugitzen zara Gasteizen barna alde batetik bestera joateko?

Oinez. Hamar minutu ditut etxetik fakultatera. Bizikleta ere badut, hala ere.

Ez duzu gida baimena aterako?

Behartzen ez banaute, ez. Batzueta, lanak izaten ditut toki batera joateko, baina eroso bizi naiz horrela.

Zenbat ordu eskaintzen dizkiozu literaturari?

Ezin dut egunik pasa zerbait irakurri edo idatzi barik; zaletasuna baino gehiago, gaixotasuna ere bada niretako literatura.

TEST-A

Herria: Donostian jaio nintzen, baina Gasteizen bizi naiz azken 20 urte inguru hauetan, ikasketak egitera joan nintzenetik. **Adina:**

41 urte. **Ikasketak:** Historian lizenziaduna. **Zaletasunak:** Musika asko gustatzen zait, eta bilduma dezentea dut. **Literatura:** Garai batean zaletasuna, baina, egun, gaixotasuna dela ere esango nuke.

Alabak: Bi ditut, eta zaletasuna eta betebeharra, biak batzen dira hor.

Ordenagailua: Asmakizun ona. Imitatu egin dut.

Ipuingintza da gehien gustatzenten zaizun generoa?

Iruditzen zait generorik naturalena dela. Gainera, uste dut oraindik ez dudala ikasi zer den ipuin bat idaztea, eta gustura sentitzen naiz saiakera horretan.

Idazten duzun guztia gordetzen duzu?

Oso letra txarra daukat, eta neuk idatzitako oharra ere ez ditut ulertzten batzuetan. Normalean, ordenagailuan idazten dut dena, eta karpeta baten gordetzen dut. Arakatzen hasten naizenean eta zerbaitek tira egiten didanean, karpeta onera pasatzen ditut testu horiek.

Idazleak pertsona bakartiak eta arraroak ere bazaretela uste dute batzuek. Egia da?

Nik, behintzat, betetzen dut topiko hori.

Zergatik janzten duzu txapela?

Euria egiten dudanean janzten dut, euritakoa baino erosoagoa delako. Nire irakasle batek erabiltzen zuen eta polita iruditzen zitzaidan; imitatu egin dut.




ZALDUA Eguenean egon zen Iban Zaldua Arrasaten.

O.E.

www.goina.net

Langileen zein eskola-umeen oporraldi egutegia ondo antolatuta dago, zure iritziz?



biharamuna

Oier Bolibar

Nebulosak

Udak dira nebulosak ikuskatzeko urtarorik onena. Hala ere, astean bildu gaituen nebulosa ikuskatzeko ez dago Uda beharrak, berez atzematen da hauts beltz eta gasez osaturiko laino lodi baten sartuak garela berrirez, harantzago dagoena ikuskatzeko posibilitaterik gabe.

Hiru nebulosa mota ezagutzen dira gure zeru-zolan; nebulosa ilunak, islapen nebulosak eta emisio nebulosak

Nebulosa ilunek ez dute argirik emititzen, eta gibelean duten argia bereganatzue, ingurua ilun mantenduz eta atzeko argitasuna ikusezin eginez.


Islapen nebulosek inguruko izarren argitasuna baino ez dute isladatzen, eta azkenik, emisio nebulosek inguruko izarren efektuaren ondorioz sorturiko berezko argia igortzen dute.

Nahi nuke jakin irentsi gaituen nebulosa honen patua zein den, islapen nebulosa den, nebulosa iluna ala emisio nebulosa.

Desirak emisio nebulosa izan dadin nahi luke, etorkizunean berezko argia izango duen oraingo egoera ilunaren aurrekaria izan dadin, baina ez da gizabanako xume baten zein biren eskuetan dagoen erabakia, nahiz, eta oro har, guztiun nahia izan.



eguradia



MINIMOA

+13

MAXIMOA

+25

Giroa lasaitu egingo da. Temperatura 25 °C-ak gainditu ezinean egongo da. Tarteka, ostarreak eta hodeiak ikusiko ditugu.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

OHARRAK

1.BATERAGARITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonia bateragarrirako den eskanient ditugun produktoekin, helbide honek:
www.smsoinu.com/bateragari

Bertan jasoko du beharreko duzen informazio guztia.

2.BALDINTZAK: Edukatik eskuratzeko, beharrezko da GPRS sistema aktibatuta izatea, GPRS sistema aktibatzea, jar, zaitetze zorritzalearekin harremanetan. Alfa ematea doan da eta Kb jaitsiera bakanik ordindu beharko duzu. Kasu guztiennetik deita eta GPRS sistemaren alfa ematea doan dira.

* Euskaltele detu 900 84 02 00 telefonora. / * Vodafone: detu 123-45. / * Movistar: detu 00-94.

3.ZALANTZAK: Edozein zalarantz duduza, jarri gurekin kontaktua: smsoinu@smsoinu.com / edo detu 902 01 21 48 telefonora.

4.PERSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabilizaleek eskura dezerla nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta detu 902 01 21 48 telefonora.

TRIKITIKA
Bexemela ta pastela (Masa ta leiri) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kepa Junkera) | **BIKEZPOK**
Hik lan eta nik jai! (Tapis) | **HIK**
Itzasten onitz batzen (Kaxano) | **ITZAS**
Kupela (Epede eta Larraga) | **KUPELA**
Mila galdera (Alatz / Maider) | **MILA**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**
Txanpon batzen truke (Alatz / Maider) | **TXANPON**
Himnoak
Eibar | **EBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Real | **REAL**
Real Unión | **UNION**
Herrikoiaik
Bagaren **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao i DESDE

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZA

5767

zenbakira

1,2 € + BEZA